

BARRUALDEAN: SANTAMASETAKO 'BEREZIA'

Arrasate

PRESES

2000.eko
abenduaren 15a
621. zomb.



*Eta marinelak berarekin
eraman ninduen portu
batetik bestera...*

Zer?



La tabernera del puerto

Asteburuan estreinatuko dute zarzuela Amaian


Urte barri-barri
txarri-belarri
daukanak
ez daukanari
kolkua bete
madari!

Zuen zerbitzura



ARRASATEKO UDALA

*Behin batean ba zen
Behinola
Behin hasi
Inoiz bukatu ez eta
behin eta berriro jarraituz
berriro ere
beste behin ere
behin batean baldin bazen
hurrengoan ere izan gaitezen
Hutsaren hurrena
behintzat bagara
Jarrai dezagun
bat izan arte*



aurkibidea

- Alkatearen agurra 3
- Asteko hitzorduak 4
- Inkesta 5
- Astearren errepasoa 6
- Orain eta hemen 9/10
- Txutxumutxuak 11/15
- Kirolak jokoan 16/20
- Zaldibar areto futbolak 23
- Hazi eta hezi 24
- Kulturaren txokoa 27/30
- Santamasetako egitaraua 33
- Aurrez aurre 34/35
- Garai bateko Santamasak 36/37
- Pilota partida 38
- Herri kirolak 41
- Dantza suelta 42
- Bertso jaialdia 45
- Baserriko tresnak 46
- Erakusleihu lehiaketa 47
- Kale animazioa 48
- Azoka 51
- Txorontpio 52
- Uhinetan barrena 53
- Foto zaharra 54





ARCO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Dieguez. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trubuelo. **Astoburueta-ko berriemakela:** Lorea Agiriano. **Banaketa ardura-duna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/86. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 **ARRASATE PRESS paper** birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

ZERBITZUAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguualatorria 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
larunbatara 17:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa
Arrasate
Astelehenetik
ostiralera 08:00etatik 17:00etara
Larunbatetan 09:00etatik 17:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Igandea	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jai egun bezpera eta larunbata	Igandea
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

manifestaziorako deialdia

Abenduaren 16an, Bilbon, euskarazko irakaskuntzaren alde egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatuta du ERDU-AEK. Gari-baitik irtengo da, 16:00etan. Txartelak AEKn eta Iratin daude salgai. Bestalde, Arrasate-

ko AED, AEK eta EHEk deialdia egiten dute Bergaran egun horretan egingo den agerraldira joateko. "Justizia Euskararentzat" da leloa. 12:00etan hasiko da.

frontoien alokairua

Uarkape, Musakola eta Iturripeko frontoiak eta futbol, tenis eta squash kantzak alokatu nahi dituztenek batzarra izango dute

abenduaren 20an Musakolako kiroldegiko bulegoetan, 18:00etan.

autobus geltokirik ez

Santamasak direla eta, Biteri etorbidea itxita egongo da abenduaren 21ean, 14:00etatik aurrera, eta abenduaren 22an, egun osoan. Hori dela eta, herri autobusaren 1. line-

ak ez du ospitalean geldialdirik egingo, eta 2. linea ez da geratuko ez Biterin ezta Legarren ere.

extremadurako gabon kantak

Euskadiko Extremadurako Elkarteek euren IX. Gabon kanta jardunaldia ospatuko dute datorren abenduaren 16an, Arrasateko La

Merced ikastetxean. 16:30etik aurrera izango da.

SFX ikastolaren batzarra

San Frantzisko Xabier Ikastola kooperatibak batzar nagusirako deia egin du. Aben-

duaren 20an izango da, 18:00 - 18:30ean, Gazteluondoko batzar aretoan.

gabonak iturbide egoitzan

Iturbide egoitzak Gabonetarako hainbat ekintza prestatu ditu. Abenduaren 20an, 10:00etan, ikastolako umeen bisita izango dute, eta 17:00etan, Iturbide abesba-

tza eta Biteriko ikasleen emanaldia. Abenduaren 21ean, 10:00etan, Almeneko ikasleak joango dira; 12:30ean, udaleko oparrien banaketa; eta 16:00etan, txokolate jana.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 15
 - Azkoaga, Iturriotz
- Larunbata, 16
 - Korkuera, Musakola
- Igandea, 17
 - Irizar, Erguin
- Astelehena, 18
 - Amezua, Santa Marina
- Asteartea, 19
 - Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 20
 - Ruiz, Maalako Errabala
- Osteguna, 21
 - Morales, San Andres



Gabonetan aldatu zure orrazkera

Kontzeziño, 4 behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09

Zer duzu gustukoen Santamasetatik?

Abenduaren 22an jai giroa izango da nagusi Mondragoen



Rogelio Vazquez
(61 urte)
Erretiratua

Ez dakit, ez naiz askotan egon, baina aurren etorriko naiz.



Ane Arenaza
(33 urte)
Langilea

Behin edo birritan etorri izan naiz. Egoten den giroa dut-gustuko.



Ane Errasti
(15 urte)
Ikaslea

Arratsaldean irteten naiz, baina giro oso polita egoten da.



Maitane Azkarate
(15 urte)
Ikaslea

Oso giro ona egoten da, baina gaueko giroa dut gustukoen.



Kontxi Basauri
(54 urte)
Langilea

Giroa, hemengo produktua, hemengo gauzak... Feria eta giroa ditut gustukoen.



Xabier Urkia
(15 urte)
Ikaslea

Asko gustatzen zaizkit Santamasak. Txerria ikustea atsegin dut eta kalean egiten diren ospakizunak ere bai.




Xabier Abasolo
(15 urte)
Ikaslea

Txerria dut gustukoen, baina gaueko parranda ere bai.



Isidor Ugarte
(23 urte)
Langilea


Gaueko parranda dut gustukoen. Urtero irteten izan naiz, baina aspaldian, lana dela eta, lehenago erretiratzen naiz.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



Ondo pasa jaiak!
Santamas eta Gabonetan zabalik

LARRINETXE Taberna

Udala auzoa
943 79 22 15

USTEAK USTE

Dena saltzen da

Datorren eguba-koitzean, Santamasak; eta zapatuan, Gabon gaua. Bitartean, kale guztiak argiz josita, eta gu, poltsikoak husteko prest. Denda guztiek dute deigarriren bat gure sosak hantxe lagatzeko. Batzuek argiak eta Gabonetako apaingarriak, eta beste batzuek, Belengo estalpeak. Baina, Erdiko Kalen ba omen dago Belengo estalpe berezia ipini duen denda ere. Jesus haurtxoa barik, Jesus haurra ipini du erakusleihoan. Eta herriko neska-mutiko mordo bat gerturatzan omen da, leihotik irudia begiratzeko. Jakin badakizue sexu kontuak ez direla nagusienak esklusiban. Baina, izan liteke gurasoak deitzeko modu bat: seme-alabak dendara erakarri eta gurasoak, atzetik, bila. Eta erakusleihora gerturatu garenez, begira segi eta azkenean, Gabonen aitzakiaz, armairua beteta.

Hamaika ikusteko jaio garenez eta horrelakoetan helburua saltzea denez, batzuei dibertigarria gertatuko zaie eta beste batzuei, berriz, ...

Marijo Deogracias

astea bi hitzetan

■ **20.000 milioi Brasiler**
Mondragon Kooperatiba Korporazioak 20.000 milioi pezeta inbertituko ditu Brasilen. MCCk egindako ikerketen arabera, Brasilek aukera handiak ditu auto-mozioen osagaietan, etxerako tresnetan eta energia eolikoan.

Atzerriko inbertsioaren erdia bideratuko dute Brasil aldera: zati bat bukatzeaz dagoen urte honetan egingo da, eta bestea, datorren urtean.

Fagor Ederlanek, berriz, Brasilen fundizio bat erosi du duela gutxi. 4.000 milioi pezeta ordaindu du.

■ Autoenplegua bultzatzen

Pasa den astean ireki zen autoenpleguari eta enpresa sortzeari buruzko ikastaroen izena emateko epea. Urtarrilaren 23a arte egongo da zabalik.

Arrasateko Udalak antolatuta, helburua da autoenpleguan interesa duten pertsonen prestakuntza ematea eta negozio ideia bati buruz lan egiten laguntzea, proiektu bideragarria bihurtu arte.

10 laguneko taldea sortuko da ikastarorako. Autoenpleguan interesatuta egonik, abian jarri nahi duten negozio jakin baten ideia dutenei dago zuzenduta, batez ere.

Interesatuak udaleko enplegu zerbitzuan eman beharko dute izena.

■ Enrike Letona Valdemorora

Enrike Letona preso arrasatearra espetxez aldatu zuten pasa den azaroaren 30ean. Murtziako espetxetik zegoen eta handik, Valdemorora eraman zuten, Murtzian 10 urte egin ditu Enrike Letonak. Guztira 13 urte daromatza preso.

■ Abendualdia

Aste honetan ekin dio Elizak urteko jairik pozgarrienari, Abendualdiari, alegia. Garai horretan prestatzen dira kristauak Gabonetarako eta Elizak ere egun bereziak izaten ditu. Hasteko, hemendik eta Gabonak arte San Juan Parrokia goizero egongo da zabalik, gogota egiteko eta otoiizerako. Horrez gain, betiko meza-oren ordezkariak izango dira egunero, eta eguba-koitzean, berriz, aitortzak egiteko aukera eskainiko da, banakakoak zein taldekakoak.

Era berean, pixkanaka jaiotza osatzen ari dira. Adibidez, Sortzez Garbiaren egunean Ama Birjinaren irudia ipini zuten eta Gabon Egunean Jesusena ipiniko dute. Gainera, ohituren aginduei kasu eginez, astero kandela bat pizten ari dira parrokian.



■ Protesta berezia

Arbolapetako zuhaitzera igo, motozerra piztu eta pankarta bat zabalduz salatu zituzten gure bailaran egin nahi diren proiektu erraldoiak. Ekintzaren protagonistak Ama Lurra talde ekologistako dozena bat lagun izan ziren. Modu horretan, Lastertasun Handiko Trena, Beasain-Durango autobidea, Garaia eta zentral eolikoek ingurumenari egiten eta egingo dioten kaltea salatu zuten, besteak beste.

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

Loramendi kirolak

www.loramendikirolak.com

INTERSPORT



**Mikropatina
9.995 pezeta.**



**Patina
4.995 pezeta.**

**Monopatina
3.750 pezeta.**



SNOW

Tabla + fijazioak.....	25.995.-
Botak.....	12.995.-
Snow eskularruak.....	6.495.-


ESKI

HEAD tablak + fijazioak.....	29.995.-
Salomon botak.....	17.995.-
Goretex eskularruak.....	4.995.-

Eskiak konpontzen ditugu.



NEREA



Calvin Klein
underwear

*Santamas
eta Gabon
zoriontsuak!*

Erdiko kale, 28 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 43



CITROËN XSARA BERRIA

Mundu seguruago batean bidaiatzeko

Citroen Xsara berria segurtasun handiagoaz bidaiatzeko gonbidapena da. Autoan sartzen zaren momentutik, bidaiatzeko egin den bidaiari baten xarma izango duzu: 1.6i 16v 110cv eta 2.0i 16v 137cv motor berriak, CD kartografikoa duen nabigazio sistema, barne ordenagailua, 6 CDdun kargagailua eta 6 bozgorailudun audio sistema, klimatizagailu automatikoa... Alboko eta aurreko airbagei esker, babestua egongo zara eta esperientzia horrekin gozatuko duzu. Baita ABS balazta banatzaile elektronikoekin ere, alboko kolpe zurgatzailearekin eta lagunduriko direkzio aldakorrarekin. Informazio gehiago www.citroen.es webgunean.

Bertsioen arabeko ekipamenduak. Penintsulan eta Balear Uharteetan stock-ean dauden autoentzat baliagarria. Citroen informazioa: 902 44 55 66

CITROËN - EK ZUREGATIK EGIN DEZAKEENA SEKULAKO A DA

ZATOZ IKUSTERA

CHAPIME TAILLERRAK

Citroën-en banatzaile ofiziala • Araba etorbidea z/g • Tel.: 943 79 45 22 • ARRASATE



CITROËN

Txapela Errusiara eraman dute

Europako ekialdera joan dira aurten Nazioarteko Akordeo Lehiaketako lehen hiru sariak. Faborito zen 19 urteko Aidar Ginullin errusiarrak eskuratu du txapela, eta baita beste bi sari ere: ikusleek ematen duten Kutxa saria eta Informatika 68 saria, derrigorrezko piezaren interpretazio onena egitearren ematen den saria.

Bigarren saria, berriz, Artem Kouznetsov soinu jotzaile errusiarrak eraman zuen, eta hirugarrena, Milos Milvojevis 16 urteko jugoslaviarrak.

Horrez gain, parte hartzaileen maila handia ikusita, epaimahaiak 4. eta 5. gertatu zirenei sari bereziak eman



Milos Milvojevis, Artem Kouznetsov eta Aidar Ginullin sariak jasotzen.

zizkien.

Gutzira, 8 partaide aritu ziren nazioarteko lehiaketan, gehienak ere, ekialde inguru hartakoak.

BESTELAKOAK

Baina, nazioartekoaz gain, Gipuzkoako XXI. Lehiaketa ere jokatu zen asteburuan Amaian. Hiru maila ezarri

ziren sariak emateko orduan. Infantil mailan Aritz Sodupe irundarra izan zen irabazlea, Estibaliz Pinacho berarra, bigarrena, eta Xabier Iglesias lasartearra, hirugarrena. Junior mailan, Beatriz Garcia irundarra, Ane Perugarria berarra eta Maite Lasa irundarrak irabazi zuten. Eta azkenik, senior mailan, Iban Galdos oartzuarra izan zen garailea, Lasarteko Cristina Perez bigarren eta Miren Elortza donostiarra hirugarren.

Horrez gain, Evgeny Petrov errusiarrak eskuratu zuen lehiakide jatorrenaren saria, SUDC elkarteak ematen duena, alegia.

Zorionak, gutzie!

Erretiratuendako Eguberriak antolatu ditu Gizartekintzak

Gabonak familian eta lagun artean pasatzeko garaia izanda, Gizartekintzak egitarau berezia prestatu du bakardadean bizi diren 65 urtetik gorakoendako, edo bikotea osatuta ere, bakardade arazoak dituzten erretiratuendako.

Donostiako Igeldo Hotela aukeratu dute Eguberriko festa horretarako.

Arratsaldean hasiko da jaia, animazio apurtxo batekin; ondoren, nola ez, Gabon gaueko afaria izango da. Ekitaldia amaitzeko, berriz, dantaldia aukeratu dute.

Eta hurrengo egunean,



Gizartekintzaren ekimena da Gabonen antolaketa.

animazio programarekin hasi eta Eguberriko bazkariarekin bukatuko dute jaia.

IRABAZIEN ARABERA

Izena ematen duten erretiratuen hileroko irabazi garbiak

aintzat hartuko dira norberak ordaindu beharrekoa zehazteko. 2.000 pezetatik hasi eta 12.000 pezetarainoko prezioak daude. Irabaziak egiaztatzeko 1999ko errenta adierazpena edo erakunde esku-dunak egindako pentsio agiria aurkeztu beharko da.

Eskaera orriak Gizartekintzako zentroetan zein udaltxean eskura daitezke. Ordaindu beharrekoa, berriz, Igeldo Hotelaren kontuan ordaindu beharko da. Hori bai, eskaera, datorren hilaren 18a, baino lehen egin beharko da.



Taberna-Jatetxea

Era guztietako bazkari eta menuak.

Aukera zabalena girorik atseginean

Santamasetan
ondo pasa eta
Gabon
zoriontsuak
izan!

Larrea Plaza, 5 • ARRASATE • Tel.: 943 77 01 69



PPk ez du ordezkorik

Jose Ramos Prieto, Alderdi Popularreko zinegotzia, bihotzekoak jota hil zela ia hilabete pasatu da, eta oraindik ez dago ordezkorik Mondragoeko Udalean. Badirudi, gainera, ez dela hain erraza izango ordezkoa aurkitzea. Izan ere, Jose Ramos Prieto zenaren ondorengo guztiak madrildarrak dira. Hori dela eta, datorren urteko otsaila arte ez du erabakirik hartuko PPK.

MU Goierrira



Mondragon Unibertsitateak ikastetxe moduan hedatzen jarraitzeko beste hitzarmen bat sinatu du. Oraingo honetan, baina, hitzarmenak eraldaketa bat ekarriko du; izan ere, Goierrira zabalduko da Mondragon Unibertsitatea. Mondragon Unibertsitatearen eskutik, Goierrri Goi Maila Eskolarekin elkarlanean, Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoko ikasketen lehenengo zikloa ikasi ahal izango da Ordizian. Datorren ikasturtean hasiko dira eskolak.

Kaleen izenak egokitu ditu udalak

Arrasateko Udalak aldatu egingo ditu herriko hainbat kaleren izenak, Euskaltzaindiak 96an kaleratu zuen

liburu baten irizpidetara egokituz.

Euskaltzaindiaren azken irizpideak bete eta izenak

erraztea izan da aldaketa horien helburua.

Guztira, 14 kaleren izenak aldatu dira.


LEHENGOA

ORAINGOA

Andalucia kalea	Andaluzia kalea
Arima Zuri plaza	Arimazubi plaza
Bizkai Etorbidea	Bizkaia Etorbidea
Etxagibel notari jauna kalea	Etxagibel notarioa kalea
Iokin Zaitegi plaza	Jokin Zaitegi plaza
Jose Letona enparantza	Jose Letona plaza
Jose Luis Iñarra abade jauna pasealekua	Jose Luis Iñarra pasealekua
Kurtze Txiki plaza	Kurtzetxiki plaza
Otalora Lizentziatua enparantza	Otalora Lizentziaduna kalea
Santamaina kalea	Santa Marina kalea
Sebero Altube plaza	Seber Altube plaza
Uherkape kalea	Uarkape kalea
Uribe auzategia	Uribe auzoa
Zaldispe kalea	Zalduspe kalea

Ikasle Abertzaleak euskal kurrikuluma lantzen

Mondragoeko eta inguruko ikastetxeetan hezkuntza euskalduntzeko kanpaina abian jarriko du Ikasle Abertzaleak taldeak. Helburua da «euskal ikasleek nahi eta behar duten hezkuntza sistema lortzea, hizkuntza eta kultura eskubideen zanpaketari aurre eginez». Horretarako, lau lan-ildo proposatu dituzte: gaztelaniazko eskolei eta ikastetxeetako eduki arrotzei aurre egitea, espainiar zein frantziar ospakizunei boikota egitea, eta



Abenduaren 6an eskolak antolatu zituen IAK.

Espainiako selektibitateari ere muzin egitea. Helburuak apurka-apurka gauzatzen joango direla eta intsumisioa dela aukeratutako borroka bidea gaineratu du IAK. Dagoeneko, egin dituzte zenbait ekintza. Orain, berriz, sinadura bilketa bat egingo dute ikasleen artean, «geure hizkuntza eta kultura eskubideak urratzen duen hezkuntzaren aurrean kontzientzia eragozleak izendatzeko». Otsaila arte luzatuko da sinadura bilketa.



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99

Mari Jose
Gora Santamasak!

OINETAKOAK

Erdiko kale, 20 • ARRASATE
Tel.: 943 - 79 22 98

ONGI ETORRI, ETA ON EGIN!



Eta ordu erdi geroago, akordeoila-riak plazan, aurtengo nazioarteko lehiaketako parte hartzaileak, hain zuzen. Ongi etorri ofiziala abendua-

ren 6an egin zieten. Ez ziren lehiatzearekin bakarrik konformatu, ez: horren ondoren, elkarte

batara joan ziren elkarrekin bazkaltzera.

SCOOTER

ELMA

BETIKO KALITATEA

Aluminiozkoa

Esku-leku tolesgarria

6 hilabetetako bermea
Pisua: 2.600 kg.

~~17.800 pta.~~

Poltsa



Artikulazio sistema erraza



Gutziz tolesgarria

10.990 pta.



Gurpil islatzaileak

FABRIKATIK ZUZENEAN!!

MERKATUKO KALITATERIK HOBERENA

UDOM, S.A.

Musakola auzoa • Notario Etxagibel, z/g. • ARRASATE
Tel.: 943 77 05 37

Ordutegia:


Goizez: 08:00-13:00

Arratsaldez: 14:30-18:00

Santamas

egunean zabalik

PAILAZOEKIN PARRANDAN



Argi geratu zen Eskoriatzako ume eta gurasoak 'parrandazaleak' direla. 1.000 inguru joan ziren Takolo, Pirritx eta Porrotxen *Parrandan*

saloaren estreinaldira. Gustura barre egin ondoren, dantza egiten amaitu zuten guztiek.

FAMATUAK 'AUTOBUSEAN'



Itxaro Zubillaga eta Maider Egües Euskal Telebistan daude orain, baina ez dute ARKO ahaztu. Hori dela eta, Arrasate Irratira etorri ziren joan den eguenean, Aitziber Aranburuzabala eta Maria Agirrekin berriketan egitera.

ERAGIN ELTZAGORRARI!



Almanchar Malagako herri bat da, eta argazkian hango pastoralak agertzen da. Al-Andalus elkarteak izan ziren joan den astean, herri hartan Gabon kantak zelan abesten dituzten erakusten. Eltzagor, pandereta eta anis botila eta guzti etorri ziren.

ORTO + LAGUN

ORTO P E D I A



- Gurpildun aulkiak
- Ohe artikulatuak, gaixoak eramateko garabiak
- Komun-aulkiak
- Eskaren aurkako aire eta ur koltxoiak

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



Ondo pasau
Santamasetan!

Zarugalde, 14 • Tel.: 943 79 49 72



- Neurrira egindako altzari eta armairuak
- Beste fabrikatzaile batzuen altzariak
- Sofak, besaulkiak, aulkiak...
- Alfonbrak
- Iluminazioa
- Ohe-estalkiak, funda nordikoak, edredoak, ...
- Koltxoiak
- Ispiluak eta margolanak
- Opariak




Korpion

Arotzategia Altzariak

Arana tar Sabin, 12
Tel.: 94 6831064
943 604129
48700 ONDARROA

Astelehenerik ostiralera 10:00 - 13:00 / 17:30 - 20:00
Larunbatetan 10:00 - 13:00

300 m² -ko altzari erakusketa



UGARTE

A R O Z T E G I A



- Apainketa
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak
- Horma armairuak



Ondo
pasatu
jaiak!

San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91



Udalaitz, S.L.

Musakola auzoa, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 18 80 / 943 79 21 25

Santamas jaiak ondo pasau!



ZENBAT LAGUN ARKON!



Ez, ez dugu erakusketarik egin ARKOn, baina hala dirudi, ikasleengan piztu dugun ikusminaren arabera. Bi bisita izan ditugu egun

gutxitan: Audio Ikastolako 6. mailakoak lehenengo, eta Plaentxi Herri Eskolako 2. mailakoak ondoren. ARRASATE PRESS, Arrasate Irratia

eta GOITB miatu zituzten, eta kazetariak ere gustura aritu ziren irakasle lanetan.



GOZOKIAK ZERUTIK ERORI ZIRENEKOA

Umez bete ziren Herriko Plaza eta inguruak San Nikolas egunean. Bizkor baino bizkorrago ibili behar izan zuten, ahalik eta gozoki gehien sakelaratzeko. Datorren urtean, gehiago.

Uriaarte
SPORT


Ondo pasau Santamasak!

Olarte, 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

ZABALA
oinetakoak

52 urtean elkarrekin ibili gara
Ospa ditzagun Santamasak
Erdiko kale, 18 • Tel.: 943 79 14 27

ESKUBALOIA Bik, etxean



Zubiko jaiaren ondoren, berriz ere denboraldiko neurketei ekingo diete Arrasate Eskubaloioek. Eta horietako bik etxean egingo dute, kadeteek eta seniorrek, alegia.


Kadeteek derbia jokatuko dute Almen taldearen aurka Iturripen, 18:00etatik aurrera. Gazte mailako taldeak bigarren aldia hasi du jadanik. Ez dira oso ondo ibili lehenengoan, baina beste aukera bat dute-nez, aprobetxatu egin behar.

Baina, hori baino lehen, seniorrek hartuko dute Iturripen. Eurek 16:30ean dute partida ordua. Aurrez aurre, Loiola taldea. Seigarren daude arrasatearrak sailkapen nagusian. Lehenengo Allerru taldea da, partida guztiak irabazita. Bernardo Balerdiren taldeak etxe-

an beste bi partida ditu jokatzeke oraindik. Eta sailkapeneko bi azkenen aurka izango dira. Beraz, aukerak baditu oraindik herriko taldeak bere egoera hobetzeko.

Bestalde, kadeteek kanpoin jokatuko dute. Bigarren aldiko lehenengo partida Hondarribian jokatu zuten azkenengo jardunaldian, baina galdu egin zuten. Asteburuan Zumarragan jokatuko dute, baina, oraingoan ere, igandean.

ERRUGBIA Oporretatik bueltan



Arrasateko errugbilariek zubia izan zuten joan den asteburuan, eta hori dela eta, ez zuten jardunaldirik izan. Baina, entrenatzen aritu dira, asteburu honetan etxean jokatuko dute eta.

Seniorrak Garagartzan dute hitzordua Eibarko taldearen aurka. Partida interesgarria izango da, bi taldeen arteko lehia handia delako. Bi taldeek pareko jokalaria dituzte, baina Joseba Maidaganek adierazi digunez, «konfiantza daukagu, eta gauzak ondo aterako direla eta irabazi egingo dugula uste dut». Hitzordua 16:00etan izango da.

Bestalde, kadeteek ere partida izango dute, Ordizian. Zapatu goizean izango da eta kontuan izanda Ordiziako taldearen aurreko partidak, ez dute ez lan makala mondragoetar gazte hauek.

FUTBOLA Zubirik ez



Mondrako jokalariek ez zuten abenduko zubia izan eta, beraz, ezin

jairik hartu. Sei partidatik, hiru irabazi eta hiru galdu zituzten.

Lehen mailako erregionalekoek Ilintxaren aurka amore eman behar izan zuten. 3 eta 2 galdu zuten Leibaren hamai-kakoak.

Ohorezko kadeteek ere gol asko sartu arren gehiago sartu zizkieten eurei eta galdu egin zuten, 3-4, Hernaniren aurka. Lehen erregionaleko neskek ere galdu egin zuten. Hauek, ordea, Urolaren aurka jokatu zuten eta sekulako gol zaparrada jaso zuten (4-0).

Irabazi zutenen zakuan lehen mailako gazteak, bigarren mailako kadeteak eta ohorezko infantilak geratzen dira. Lehen mailako gazteek 5-2 irabazi zioten Amarari eta ohorezko infantil mailako taldea ere Aldapetarrak taldeari gailendu zitzaion.

Bestalde, bigarren mailako kadeteek Bergararen aurkako derbia irabazi zuten (2-0).

Jokatzekoak

SASKIBALOIA

Iarunbatean, Musakolan

- **Kadete mutilak:** Kenci Arrasate - Irurok, 12:15ean
- **Juniorrak:** Kenci Arrasate - Easo Kafes Aitona, 16:00etan
- **23 urte azpikoak:** Kenci Arrasate - Ingeniaria G. Arana 16:00etan

ESKUBALOIA

Iarunbatean, Iturripen

- **Seniorrak:** Arrasate Almen - Loiola, 16:30ean
- **Kadeteak:** Arrasate - Almen, 18:00etan

ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Arrasate - Eibar, Iarunbatean, Garagartzan, 16:00etan

Aitor Lopez Rekarte saria

Santamasetako biharamunarekin hasiko da aurten Aitor Lopez Rekarte saria abenduaren 23an. Laugarren aldia du umeendako antolatzen den txapelketak. Sei egunetan Atxabalpen arituko dira 11 - 12 urteko jokalaria. Izan ere, txapelketa 1988 eta 1989an jaio-takoei zuzenduta dago.

Iaz zortzi taldek jokatu zuten eta Bizkorrek taldea izan zen txapelduna. Eurek

jaso zuten trofeoa, Aitor Lopez Rekarteren eskutik.

Aurten, txapelketa abenduaren 23an hasiko da eta hurrengo partidak abenduaren 26, 27 eta 28an jokatuko dira. Finalerdiak abenduaren 30ean, eta finala, berriz, abenduaren 31n. Partida guztiak Atxabalpen jokatuko dira eta 25 minutukoak izango dira. Tartean, bost minutuko atsedenaldiak egingo dira.

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCko leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketak eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 beheka
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

EUROPCAR

Autoen Alokairua

MONDRAGON

ARRASATE



EUROPCAR

DAGOENeko
ZURE HIRIAN
DAGO.

Hotel Mondragon. Biteri etorbidea, 16. Tel.: 943 792 482

Europcar

AUTO BAT ALOKATZEA BAINO GEHIAGO.



EUROPCAR

Gabon zoriontsuak eta Urte berri on!

Barrutik dotore janzteko ARIANEn duzu aukera zabalena

ARIANE

Erdiko Kale, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 33



Oskar Vitoria
Bitxitegia

Zorionak eta urte berri on!

Jokin Zaitegi, 9 • Tel.: 943 77 18 12

Lau arrasatear Gipuzkoako taldekako finalean


Gipuzkoako taldekako pilota txapelketako finalera iritsi dira Mondragoeko bi bikote, eta egubakoitzean jokatuko du bikoeetako batek azken neurketa, Uarkapen. Bestek Azkoitian jokatuko du.

Nagusien lehen eta bigarren mailako bikoteak iritsi dira txapelketako finalera.

Bigarren mailako nagusien mailan Eneko Osinagak eta Aitzol Lazkanok jokatuko dute. Eurekin batera David Belategi ere aritu da txapelketan txandako bikotea osatzen. Finala, ordea, aurreko biek jokatuko dute. Aurrez aurre Villabonako Behar Zana taldeko pilotariak izango dituzte.

DERBIA LEHEN MAILAN

Arrasate eta Aretxabaletako pilotariak arituko dira nor baino nor lehen mailako nagusien finalean.



Osinaga-Lazkano eta Errasti-Zuazubiskarrek jokatuko dituzte finalak.

sien finalean. Josu Errasti eta Lordi Zuazubiskarrek Errasti anaien aurka jokatuko dute aurtengo txapela. Bi bikoteek kanporaketa partidak ere jokatuko dituzte elkarren aurka. Arrasaten atxabaltarrak izan ziren nagusi, eta Aretxabaletan alde-

rantziz izan zen. Beraz, ikusmin handia sortu duen partidak da. Final hau, ordea, Azkoitian jokatuko da.

TXAPELKETA ONA

Gipuzkoako txapelketa horretan Mondragoeko bina biko-

tek jokatuko dute hiru mailatan: kadetetan, gazte mailan eta nagusietan. Azken maila horretan iritsi dira finalera, eta horri esker, datorren urtean bi bikoteek jokatuko dute nagusien lehen mailan. Hori kontuan izanda, bikaina izan da aurtengo txapelketa.

Bi partida hauez gain, emakumezkoen paleta txapelketako finala, gazte mailako eskuz banakako finala eta nagusien arteko eskuz banakako finala ere jokatuko dira.

Neurketa guztiak Gipuzkoako taldeen arteko txapelketakoak dira eta iluntzeko 8etan hasiko dira.

Ostiralean, 20:00etan, jokatuko dira Gipuzkoako taldeen arteko txapelketako finalak

Igoera aldirako sailkatu da Kenci Arrasate

Bi partida jokatuta zituen Kenci Arrasatek asteburuan. Bietako bat irabazi beharra zuen igoera aldirako sailkatzeko. Eta horixe egin zuen.

Kenci Arrasatek galdu egin zuen Iruñean ERRO eta EUGI taldearen aurka (82-56). Bigarrena, Iturripen jokatuta zuten Lander Errastiren mutilek, Leioako taldearen aurka, eta erraz irabazi zuten etxekoek (85-60).

Hemendik aurrera, Kenci Arrasate talde indartsuena aurka arituko da eta beste urtebetez mailari eutsi nahi izanez gero, hemendik aurrera jokatuta beharreko neurketetan emaitza onak lortu beharko ditu. Hala ere, lehen aldiko azkenengo neurketa jokatuko



Lehen aldiko azkenengo partida jokatuko dute asteburuan.

beharko du oraindik, eta igoera aldirako dagoeneko sailkatuenez, Errioxan Calahorraren aurka ez da beharrezko irabaztea. Ziur, ordea, Kenci

Arrasatekoak saiatzen direla.

NESKEK BAKARRIK

Beste taldeei dagokienez, kadete mailako neskek baino

ez zuten jokatuta zubiko egunetan. Musakolan aritu ziren Iraurgi Sabi taldearen aurka, baina galdu egin zuten. Asteburuan, Donostian saiatu behar.

ZOZKETA GOITBN

Bestalde, Kenci Arrasatek urtero egiten duen Gabonetarako zozketa, aurten GOITBko Goienasport saioan egingo dute, horrela inor despistatu ez dadin. Hiru otar eta bi lagunendako lau afari zozketatuko dituzte.

Gogora ezazue, zozketan bazkideek parte hartuko dutela.

Astelehenean izango da zozketa Goienasport saioan, 21:30etik aurrera.

Eskalada txapelketa Uarkapen

Zapatuan eskalada txapelketa herrikoa egingo dute Uarkapeko boolderrean. Lehenengo aldia da horrelako ekimen bat egiten dela boolderria ireki zenetik, baina antolatzaileak ilusioz beterik daude lehen aldiz egiten; izan ere, jende dezente ari da boolderria erabiltzen. Besaideren laguntza izan dute lehenengo txapelketa antolatzeko eta jende askok parte hartzea espero dute. «Asmoa rokodromoa ezagutzera ematea da eta hori dela eta, txapelketaren lehenengo proba parte hartzaile guztiok batera egingo dugu», azaldu digu Raul Jimenezek. «Gainera, jendeak lotsa izaten du oraindik gure artean iku-



Zapatuan, 16:00etan, hasiko da txapelketa Uarkapeko boolderrean.

si ez den kirola delako eta guztiok batera hasten baldin bagara, samurragoa izango da lotsa hori ezkutatzea». Probari dagokionez, «sei bat 'pauzu' jarri-

ko ditugu eta aldi berean hasiko gara guztiok, bakoitzak nahi duen tokitik. Kontua bide hori lehenengoan egitea litzateke, bigarren aukeran 10 pun-

tu bakarrik batzen direlako eta hirugarren saiakeran, berriz, 5 puntu. Horrela, puntu guztiak batu eta bost onenen artean azkenengo bide bat egingo dute. Txapelketari emozio pixka bat emateko izango da azkenengo proba hau».

Txapelketarako izen ematea zapatuan Uarkapen egingo da eta hainbat maila egongo dira, izena ematen duen jendearen arabera. «Sariak ere egongo dira, baina zozkatu egingo dira. Mendirako materiala izango da. Hala ere, gaztetxoenei saritxo bat emango zaie eta parte hartzaile guztiei elastiko bana banatuko zaie».

Euskal Herriko karate txapelketa

Zapatuan jokatu da Euskal Herriko kadete eta junior mailako karate txapelketa. Eta Saioa karate eskolakoak ere parte hartuko dute Gipuzkoako selekzioarekin batera. Bost karateka joango dira: Goizeder Caballero, Mikel Zabarte, Jorge Sanchez, Patricia Morales eta Garbiñe Tera.

Txapelketan 95 bat karateka espero dira, guztiak ere 16 eta 20 urte bitartekoak.

Iaz parte hartu zuten Saioako karateketatik lauk Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuten. Beste txapelketa hori urtarrilean jokatu



Saioako bost karateko arituko dira Gipuzkoako selekzioarekin.

da. Baina, Iñaki Muñoz Saioa Karate eskolako entrenatzaileak azaldu digunez, «aurten ez daukagu esperantza askorik, beste gauza batzuk prestatzen aritu gara eta. Hale ere, gure karatekek badakite zer egin behar duten, eskema jakin batekin arituko dira eta».

Kontuak kontu, iaz lortutakoa hobetzeko edo berdintzeko aukera eurakusten duten mailaren arabera egongo da, beraz, zortetik onena izan dezatela. Txapelketa Bergarako Labegaraietako kiroldegian jokatu da arratsaldeko 4retatik aurrera.

Expres kafetegia

- Ogi egin berria
- Olagarroa eta riveiro ona
- Urdaiazpiko egosia
- Kazuelatxoak

Maalako errebala, 8 • Tel.: 943 77 13 87



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, EQ-11 • ARETXABALETA
 Telfax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Ehune

Apainketa



GABON ON ON



Garibai, 8
Tel: 943 77 11 48
ARRASATE

J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA

Opel Corsa berria



DISEINUA ETA PRESTAZIOAK BATEGINIK

OPEL

TALLERES OLA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86



Izen aldaketa

Zaldibarko antolatzaileek ohar bat zabaltzeko eskatu digute: hemendik aurrera taldeek ezingo dituzte izenak aldatu ez eta jokalariai ere! Dirudienez, hainbat taldek izena aldatu dute txapelketa hasi zenetik, baina, jadanik, ez dituzte aldaketa gehiago onartuko.

Ez estresatu larregi baloiari begira. Aste honetan izango da eta urteko azkenengo jardunaldia.

OPORRALDIA

Zaldibarko txapelketako aurtengo azken partidak asteburuan joatuko dira. Oporraldi luzea hartuko dute gero talde

guztiek. Gabonak tarteko hiru asteburuetan, behintzat, atsedena hartuko dute. Gabonetako betekadetarako goserik ez dute egingo jokatzeko, bai-

na tira... gero, behintzat, atsedena hartuko dute urtarrilaren bigarren asteburua arte.

Horren aurretik, ordea, bosgarren jardunaldia jokatu-

ko dute zapatu eta domekan. Jardunaldiaren hasiera ordua: 09:50ean zapatu goizean. Ez ahaztu, bestela badakizue zer dioen arauak!

Hurrengo partidak / 5. jardunaldia

abenduak 16, larunbata

Zaldibar

09:50	Txotx - New Makai	(Goma2)
11:00	Goma 2 - Leya	(New Makai)
12:00	Serengeti - You Know	(Leya)
13:00	Iristu - Fraguél Gol	(You Know)
14:00	Irati STS - EPEH	(Fraguél Gol)
15:00	IKP - Txeyenex	(Irati STS)
16:00	KJ Basati - Sas T	(Txeyenex)
17:00	Makanaki - AL Ion	(Sas T)
18:00	Etixerat Tab. - DKB Kobate	(Makanaki)
19:00	Kamasutra - Bokajarro	(Etixerat Taberna)

Iturripe A

14:50	Usotz Potroak - Alai Gozokiak	(Katxiporra)
16:00	Betrayer - Katxiporra	(Alai Gozokiak)

Epailea

Iturripe B

14:50	Cahpime Dribling - Bikain Akademia	(AKTA)
16:00	AT Celaya - AKTA	(Bikain Akademia)

Igandea, 17

Zaldibar

10:50	Pepelus - Rayo Aldeano	(Komando Alpargat)
12:00	Komando Alpargat - Aurrera Bolie	(Pepelus)
13:00	Lasagabaster - Kanpanzar Harrobia	(Aurrera Bolie)

Epailea

Epailea

Atsedena: Abocajarro, Aurrera Bolie.

Leire Blanco

Arrasate garapen jasangarriaren bidean kanpainako koordinatzailea

Nekazari-Ingeniaritza Teknikoa ikasi zuen Iruñean eta orain dela hilabete Arrasateko Udaletxeko Ingurumen Batzordearekin lanean hasi zen, mondragoetarren ingurumenarekiko errespetua areagotzeko. Leire sentsibilizazio kanpainaz arduratzten da.

— Zelan hasi zinen lan horrekin?

— GKE batean hasi nintzen, Mugarik Gabeko Ingeniaritza (MGI), hain zuzen ere. Ingurumena betidanik gustatu izan zait eta Arrasateko Udalararekin gai horretan lanean hasteko aukera sortu zen. MGI kontratatua ari naiz lanean.

— Baina, zelan sortu zen ideia?

— Martxoan udalak bi konpromiso sinatu zituen: *Europako herri eta hirien jasangarritasunerako eskutitza* edo *Aalborg-eko karta*, eta *Oinezkoaren eskubideen Europako eskutitza*. MGI eta Euskal Herriko ZERI taldekoek horren berri izan zuten eta Arrasateko Udalarari elkarlana eskaini zioten sentsibilizazio kanpaina abiarazteko.

— Bi konpromiso horiek zertara behartzen dute udala?

— Europako hiri jasangarrien kanpainan sartu da udala konpromiso hori hartzean. Jendearen bizi-kalitatea hobetzen saiatzea da helburua, ingurumena kontuan hartuz. Argi dago munduko biztanle guztiok ezin dugula



bizi-kalitate bera izan; gu beste batzuen bizkarretik bizi gara eta orain arte bezala segitzen badugu, hurrengo belaunaldiek ez dituzte guk izan ditugun aukerak izango. Garapen jasangarria ez da ingurumena bakarrik; arlo guztiak sartzen dira.

— Zelan gauzatuko da kanpaina Arrasaten?

— Jendearen parte hartzea behar-beharrezkoa da.

«Inkestak egingo dira herritarren artean, abenduaren 11tik 20a bitartean».

Horretarako, jendea sentsibilizatu egin behar da eta informazioa jaso behar du. Hori gauzatzeko Tokiko Agenda XXI egingo da Arrasaten

ere.

— Zer esan nahi du horrek?

— Ingurune izeneko enpresa ari da Arrasateko ingurumenaren egoera aztertzen, eta lehenik eta behin, inkesta batzuk egingo dira

herritarren artean, abenduaren 11tik 20a bitartean. San Viator Ikastolako ikasle batzuek egingo dituzte. Guztira, 400 laguni egingo zaie inkesta.

— Zein helburu du inkestak?

— Jendearen ikuspuntua oso garrantzitsua da eta erantzunen artean 'adierazle' batzuk aukeratuko dira urtero izaten duten bilakara aztertzeko.

Baina, horrez gain, komunikabideetaz baliatuko gara eta ARRASATE PRESS-en, esaterako, hamabostean behin lau orrialdeko gehigarri bat argitaratuko dugu udalak sinatu dituen bi gutun horiek azaltzen, eta bide batez, horrek dakarkion konpromisoa zein den jendeak jakin dezan. Arrasate Irratian eta GOITBn ere egingo ditugu tarte bereziak. Maiatza arte iraungo du sentsibilizazio kanpainak.

— Zerk dauka lehentasuna Arrasaten?

— Ez da inoiz azterkerarik egin eta arlo asko dauka konpontzeko. Zaborraren kasuan, esaterako, kontua bakarrik ez da birziklatzea, baizik eta horrenbeste zabor ez sortzea, ezta?

Kontsumitzen dugun gauza bakoitzak ehuneko zabor asko sortzen du eta txarrrena da ohitu egin garela; madalena poltsa bat erosten dugu, eta kanpoko zorroz gain, madalena bakoitzeko zorro bat ere bota behar izaten dugu.

Santamasetan geurean jaiginda!



ALDAPE

Taberna

Espezialitatea: menua-karta

Iturriotz, 41

Tel.: 943 79 70 41

ARRASATE

PUB HAIZEA



arrasate

MUXIBAR

Tel.: 943 79 11 25

PIZZAK

ARROGOI TABERNA

Santamasak iritsi dira, zatorz guzana!

Zarugalde, 28 • ARRASATE • 943 79 06 40

SANTAMASAK ONDO PASATZEKO...



Iturriotz, 12 • ARRASATE

Aupa Santamasak! Aupa Arrasate!

OKORETEGI

KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62



Aupa arrasatearrak! Aupa Santamasak!

DISCO-BAR



Disco-Bar Gurelekuk SANTAMAS JAI ZORIONTSUAK opa dizkizu.

Zarugalde, 17 behea • ARRASATE
Tel.: 943 79 20 29

Santamasetan geurean jaigiroan!

BRANKA TABERNA

Santamasak ondo pasa!
Zarugalde 1 • Arrasate • Tel.: 943 79 21 13



- Astean zehar eguneko menua
- Aste bukaeretan plater konbinatuak

ANBOTOSTE TABERNA

Larrea Plaza, 2.ena • 20500 • Tel.: 943 79 68 30

RUMBA TABERNA

JAI ZORIONTSUAK IZAN!!

Iturriotz kalea
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00


ESKIÑA taberna

Ondo ibili Santamasetan!
Olarte, 25 • ARRASATE • Tel.: 943 79 20 20

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE



IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE



Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57



Olarte 37, Behea 20500 Arrasate Tel.: 943 796 792



BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 79 1768

ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE

EUSKAL PRESOKAK EUSKAL HERRIRA!



Zarzuela onenatariko bat, arrasatearrek antzeztuta

Bihar eta etzi berpiztuko da Arrasatek aspalditik gordeta izan duen tradizio bat: zarzuela. Izan ere, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *La taberna del puerto* eskainiko du Amaia antzokian.

SUDCeke Jesus Mari Artzek eta Arrasate Musikaleko kantu irakasleak, Tere Gonzalezek, antolatu dute, eta bai bakarlariak, bai eta abesbatzako kideak ere, Arrasate Musikaleko kantu ikasleak eta herriko zaleak dira. Cristina Cubillo, Mikel Balanzategi, Naroa Elortza, Mertxe Salaberri, Luis Mari Okina, Tomas Axpe, Iñaki Olaizola, Mikel Izurrategi eta Josetxu Urrutia dira bakarlariak, Josean Garciaak zuzenduta. Abesbatzaren zuzendaria Tere Gonzalez da. Donostiako Orkestra Sinfonikoa izango dute lagun.

TRADIZIOA

Ekimen horrek Arrasateko zarzuela tradizioan ditu sustaraiak: «50eko hamarkadan egin zen Arrasaten azken zarzuela. Ordura arte, Mondragoen bakarrik egiten zen zarzuela, nahiz eta hiria ez izan», dio Jesus Mari Artzek. Ohi-



tura hori berreskuratzeko lehen ahaleginak 1989an egin ziren, baina ezerezean geratu ziren. Oraingoan, lankide bikaina du Artzek, Arrasate Musikaleko Tere Gonzalez irakaslea.

ELKARTEA

Arrasate Musikaleko kantu ikasleek euren iaotasuna erakusteko aukera ikusi zuten. Beraz, Arrasate Musikaleko ikasleekin eta beste hainbat zalerekin batera, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa sortu zuten.

Jakina, talde sortu berria den aldetik, zailtasun franko aurkitu ditu. Jantzi eta dekoratu xamurrekin egin daiteke-

lako aukeratu zuten *La taberna del puerto*. Baina, guztia ez da horren erraza izan: «Libretoari dagokionez, adituek esaten dute zarzuelarik onenatariko eta zailenatariko bat dela».

BETE NAHIAN

Koska horiek gainditzeko, ia urtebeteko lana egin dute elkarteko kideek. Bihar ikusiko da horren emaitza. *El caserio* zarzuelan bete egin zen Amaia antzokia, eta orain, herriko jendeak antzeztutako zarzuela denez, arrazoi gehiago egongo dira ikuskizunera joateko.

Herri zarzuelazalea

Iazko *El caserio* izan zen 40 urtez ahaztu samarra izan zen usadio baten azken adierazpena. 50eko hamarkadan egin ziren lehenengo zarzuelak, Zentro Katolikoan eta Abadetxean. Kanpotik etorritako Lope de Rueda kopainiak zarzuela ezagunak plazaratu zituen Zaldibarran: *La dolorosa*, *Los clavales*, edo *La del manojo de rosas*, besteak beste.

Hura joandakoan, arrasatearrek antolatzen zituzten, Gurea zineman: *La taberna del puerto* 1957ko maiatzean eskaini zuten, Maria Visi Coto, Jose Mari Mendizabal eta Fernando Aranbururekin. Horrez gain, *Katuska*, *El caserio* edo *Viento sur* ere eskaini zituzten. Horietako asko David Arzamendik zuzendu zituen, eta bere anaia, Juan, aritu zen piano jotzaile. Azken zarzuela, *Mirentxu*, 1960ko ekainean egin zen, kritika eta entzuleriaren laudorioekin.

C. CUBILLO ETA M. BALANZATEGI (ANTZETZLEAK)

Cristina Cubillo (Marola) eta Mikel Balanzategi (Juan de Eguia) dira zarzuelako protagonista nagusiak. Arrasate Musikaleko kantu ikasleak dira, eta antolatzaileen esanetan, profesionalak bezala abesten dute.

—Zelan zuek protagonista?

C. eta M.: —Ez ziguten aukerarik eman. Halako

batean guregana etorri ziren eta zera esan ziguten: “Hau egin behar duzue”... eta hementxe gaude. Eta eskerrak ez genekiela zelako lana izango zen, ze bestela ezezkoa esan izango genukeen! (barrezka)

—Zer izan da latzena?

C. eta M.: —Abesten bagenekien, baina antzeztuten, apropos ikasi behar izan dugu. Hori izan da zailena.

—Abenduaren 18tik aurrera, zer?

C. eta M.: —Pena da urtebeteko lana bi egunetan xahutzea.

Ondo irteten

bada, inguruko herrietara eramango dugu zarzuela hau.



«Antzezten ikasi behar izan dugu»

Extremadurako Gabon-kanta emanaldia



Corazon de Encinako abesbatzak ordezkatuko du Arrasateko elkarte

Gabon aurreko giro gozoan elkarrekin egun pasa egitea, tartean Gabon-kantak abestuz. Hori da FAEDEK, Euskadiko

Extremadurar Elkarteen Federazioak, abenduaren 16rako duen asmoa. Eta egun pasa atsegin hori Arrasaten egingo

dute, hementxe ospatuko baita FAEDERen IX. Gabon-kanta jardunaldia. Corazon de Encinako lehendakari ohia, Jesus Rodriguez, FAEDEko lehendakariordea da, eta bere ekimenez ekarri da lehenengo aldiz ospakizun hori Arrasatera. Elkartekoez gain, herritar guztiak daude gonbidatuta.

EUSKADI OSOTIK

Andoain, Barakaldo, Astrabudua-Erandio, Laudio, Santurtzi, Durango, Erreterria, Ermua, Legazpi, Donostia, Galdakao, Gasteiz, Tolosa eta Bilboko extremadurar elkar-teak etorriko dira. La Merced

ikastetxeak egoitza utzi die ospakizunerako, han 600 bat lagunendako lekua baitago. Kantari talde batek ordezkatuko du elkarte bakoitza. Extremadurako herri kantak eta apropos sortutako batzuk eskainiko dituzte.

Aurreko urteotan lehiaketa egiten zuten. Baina, Jesus Rodriguezek hau esan digu: «Lehia kutsua kentzea erabaki genuen, eta egun hau bizikidetzara polit bat izatea. Parte hartzaile guztiak oroigarria jasoko dute». Egunotan, FAEDE Extremadurako COPE irriarekin harremanetan zebilen, eta baliteke irriti horrek jardunaldiak emititzea.

Big Lie Tourra badatorrela!

Ohiko hedabideetan agertzen ez diren artistei bidea zabaldu nahi die Oñatiko Big Lie ekoizpen taldeak. Horretarako prestatu duten azken egitasmoa Big Lie Tour 00/01 izenekoa da. Joan den egubakoitzean Oñatin egin zuten estreinaldia, eta zapatu honetan Arrasateko Gaztetxean egingo du geldialdia, musika, poesia eta zinemako artista minoritarioak guregana hurbilduaz. Sarrerak 500 pezetan salduko dira.



Golpe de Estado talde oñatiarrak joko du zapatuan

PUNKA ETA TECHNOA

Gaueko 11etako musika emanaldia da plater sendoe-

na. Golpe de Estado eta Madero punk talde gazteen doi-

nu gogorrek izango ditugu lehendabizi; ondoren, DJ Kir

rin oñatiarraren techno sesioa.

Baina, 17:00etatik aurrera, beste ekintza batzuk izango dira. Ordu horretan *Nora hoa Bixente?*, *A dar ba kar*, *Cappici* eta *Raziel*en itzulerara film laburrak eskainiko dira, eta 22:30ean, Jon Aias-tuiren poemak errezitaldia eskainiko dute Oñatiko poeta gazte batzuek. Gainera, esketx moduko bat prestatu dutela aurreratu digute.

Arratsalde osoan Big Liek banatutako fanzineak erakusgai egongo dira, baina erosteko aukera ere egongo da.

 **Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarako hotz eta beroak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARTE
Industria
hornidurak
Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-79 34 12

ZUBIZARRETA
LANTEGIAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65


HIES
BERRI
Tel.: 943 79 26 99



*Aspertuta gaude!
Sukaldea zaharkituta
gelditu da.*

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



Ametsetako sukaldeak geurean aurkituko dituzu




Mende hasierako Mondragoe, J.M. Velezen liburu berria

Bizi izan juat; horrelaxe deitzen da Jose Mari Velez de Mendizabal idazleak mende hasierako Arrasatez idatzi duen liburua. Joan den egue-nean egin zuen idazleak aurkezpena, Monterron jauregian.

Liburuaren izenburuak aitopen kutsua ematen du, eta, neurri handi batean, horrelaxe da. Izan ere, Jose Mari Velezek Jesus Trincado izeneko adiskide baten gogoetak erabili ditu 1910etik 1930erainoko Mondragoe deskribatzeko.

GUTUNAK ERBESTETIK

Jesus Trincado 92 urteko arrasatearra da, Espainiako Gerra Zibila hasi eta erbesterratu egin



Jesus Trincado.

zena: Frantzia bizi izan zen, eta, 1950az geroztik, Uruguayn. Gaur egun, Montevideon bizi da. Biek gutun bidezko harremana izan dute azken 25 urteotan, eta gutun horiek

izan ditu abiapuntu Jose Mari Velezek bere azken liburua idazteko. «Alde batetik, Jesus Trincadoren hitzen bidez, orduko Arrasateren 'argazkia' egin dut. Eta, bestetik, Jesu-

sen bizitza azaltzen da. Baina, ez da Jesus Trincadoren biografia bat, baizik eta bere gogoeten bidez egindako deskribapena», esaten du. Velez de Mendizabalek dio bere lagunak bihotzean daramala jaioterria, eta oso ondo gogoratzen duela.

MEMORIA HISTORIKOA

Historia oso gai mina du idazle arrasatearrak, eta herriko mende hasierako historia finkatzea da liburuaren helburua: «Ez dugu memoria historikoa galdu behar. Mende hasieran gertatutakoa finkatu eta gorde behar dugu. Ni ez naiz historialaria, baina hor historialariek bide bat dutela erakutsi nahi izan dut.»

Jokin Zaitegi lehiaketako sariak banatuko dira

Abenduaren 20an, egue-nean, egingo da aurtengo Jokin Zaitegi Itzulpen Laburren Sari-ketaren sari banaketa. Monterronen egingo da, 18:00etan. Irabazleak 200.000 pezeta jasoko ditu, eta finalistak, 100.000. Nortzuk diren orduan bertan jakingo da.

KULTURBATZA

Urtero, sari banaketa ekitaldian, euskal kulturagintzako pertsonaia edo elkareren bat gonbidatzen du sariketaren antolatzaileak, AED elkarteak. Aurten, sortu berri den



Patxi Xabier Ibarzabal izan zen iazko irabazlea.

Iokin Zaitegi Kulturbatza taldea etorriko da. Euskal Herri osoko unibertsitate irakasle, hizkuntzalari eta beste hainbat adituk sortu dute elkarte hori, eta arrasatear ikerlari eta idazle haren inguruko hitzalditxo bat eskainiko dute.

Honenbestez amaituko da aurten XIV. aldia izan duen sariketa hau. Itzulpengintza sustatzea du helburu, eta munduko edozein hizkuntzatatik euskaratutako lanak aurkezten dira. Aurten, ura izan da aukuratutako gaia.

Sukalde altzarien fabrika eta horman-armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua. 40-42
Tel.: 943 79 53 32



MAZDA

Piztu zure emozioak

NORKAR-en espazio berriak menperatzeko, ohikoa atzera uzteko, jaioko gara.

Horregatik, MAZDA marka aurkezten dizugu.

Esklusiboaren aldeko dema sendoa, 1931tik, mundu osoan sormen teknologikoari esker ezagutzen den marka japoniarra.

Gainerakoek zirriborratu besterik egin ez dituzten ideiak garaile bihurtu dituen marka, hain zuzen ere, kalitatea zein originaltasuna oinarritzat dituena.

NORKAR-ek zirrara berriak sentiaraziko dizkizun auto-saila jartzen du zure eskura. Aurki ezazu.

MAZDA marka jartzen du zure eskura.

Aurki ezazu.



Mazda Premacy 1.8 16v. Touring
Prezioa: 2.950.000 pzta.*

* B.E.Z., Garraioa eta Ibilgailuen matrikulazio zerga barne.

NORKAR

Zure MAZDA Kontzesionario berria non aurkituko duzun:

IURRETA

Mallabiena, 4
tel: 946 215 640
tel: 946 215 643

ARRASATE

Zigarrola, 1
tel: 943 712 002

ELGOIBAR

Olaso, 23
tel: 943 742 037



Grupo
Nortekar

Txinperta



Lau bat urte ditu eta 300 kilo inguru.

Bera izango da Santamas eguneko izarra: Txinperta.

Horrela jarri dio izena Elizgarai baserriko Pilar Larzagurennek.

Baserri horretan dago Txinperta, bere 'Sanmartin' eta gure 'Santamas' eguna ailegatu arte.

Ziur, horrek ere txorizo eta odoloste ederrak ematen dituela. Eta urdaiazpikoak, zer esanik ez!

egitaraua

Abenduak 16, zapata

- 16:00 Uarkape udal pilotalekuan, Santamas XXI. Pilota Txapelketa.
- 16:00 Uarkapeko rokodromoan, Santamas I. Boulder Txapelketa Herrikoia.
- 16:00 Musakolako kiroldegian, Arku Tiraketa Txapelketa.
- 17:00 Gazteluondoko kiroldegian, Taun-Taun taldearen *Txio-txioka* antzezlan.
- 19:30 Amaia antzokian, *La tabernera del puerto* zarzuelaren emanaldia, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik.

Abenduak 17, domeka

- 11:00 Herriko kaleetan barrena, koadrillen arteko XXIII. Santamas Krosa.
- 18:00 Herriko Plazan, Arrasateko VIII. Binakako Arin-Arin eta Fandango Txapelketa (14 urte beherakoentzat).
- 19:30 Amaia antzokian, *La tabernera del puerto* zarzuelaren emanaldia, Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren eskutik.

Abenduak 21, eguna

- 19:00 Etxafleroak.
- 19:00 Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa.
- 19:00 Santamasetako txerriaren aurkezpena eta zozketa txartelen salmenta.
- 19:30 Incansables txarangaren kalejira.
- 22:30 Uarkape udal pilotalekuan, pilota partida interesgarriak.
- 23:00 Herriko Plazan, dantzaldia Akelarre taldearekin.
- 24:00 Herriko Plazan, zezensuzkoa.

Abenduak 22, egubakoitza

- 09:30 Arrasateko gaiteroekin eta Arrasateko txistulariekin, diana.
- 10:00 Biteri aparkalekuan, fruta eta barazkien erakusketa eta lehiaketa.
- 10:00 Azoka plazan, Euskal Herrian eskuz egindako gazten lehiaketa, Eskualdeko II. ezti lehiaketa eta hegaztien erakusketa.
- 10:00 Herriko Plazan, txotx jaia eta taluak.
- 10:00 Laubide plazan, Debagoieneko ganadu feria. Laguntzaileak: Kutxa eta Euskadiko Kutxa.
- 10:30 Jokin Zaitegi plazan, artisau langintzen jarduera eta erakusketa.
- 10:30 Garibai etorbidean, Arrasateko baserrietako antzinako tresnen erakusketa.
- 11:00 Laubide plazan, herri kirol erakustaldia. (Txingak, txokorrek, trontzalarriak, zakularriak, lastoa, ingudea, harri jasoaldiak...) Umeek parte har dezakete.
- 11:30 Kalejira: Arrasateko txistulariak, Arrasateko gaiteroak, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldea, Lore Gazteak dantza taldea, Arrasateko trikitilaria, Iturengo ttuntturruak eta Incansables txaranga.
- 11:30 Biteri aparkalekuan, fruta, barazki, gazta eta ezti lehiaketen sari banaketa.
- 12:30 Herriko Plazan, Lore Gazteak dantza taldearen ekitaldia.
- 12:30 Zaldibarren, Santamas Aizkolari Txapelketa, binakako Urrezko Aizkora Txapelketaren barruan. Aizkolariak: Olasagasti, Arrospide, Mindegia, eta Larretxea.
- 13:00 Zaldibarren, Goenatxo harri jasotzailea.
- 13:00 Herriko Plazan, Arrasateko trikitilarien ekitaldia.
- 13:30 Herriko Plazan, Arrostaitz dantza taldearen ekitaldia.
- 14:00 Herriko Plazan, Txerri Dantza herrikoia.

- 14:30 Uarkape pilotalekuan, herri bazkaria. 15:30etik aurrera, umeentzat tailerrak Txartelak: AED, Hire liburu denda, Biona eta Monte tabernak. Prezioa: 1.500 pezeta.
- 17:30 Herriko Plaza inguruan, Goloka taldearen Sorginak kale antzerkia. Eguraldi txarra eginez gero, Gazteluondoko kiroldegian.
- 19:00 Herriko Plazan, Txerri dantza eta Larrain dantza.
- 20:00 Amaia antzokian, bertso saioa. Partaideak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Igor Elortza, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira. Gai jartzailea: AEDko Bertso Eskola. Txartelak salgai: AEDn, Irati, Monte eta Iturriotz tabernetan.
- 23:00 Herriko Plazan, dantzaldia Irailerako Sei taldearekin.
- 24:00 Herriko Plazan, txerriaren zozketa.

Abenduak 24, domeka

- 12:00 Txoronpio eta Txoronpia, Olentzeroren Arrasateko lagunene artea. Herrian ibiliko dira Olentzeroren gutunak jasotzen.
- 18:00 Olentzeroren artea. Ibilbidea: Zaldibar, Portaloia, Olarte, Zarugalde, Udala plaza, San Andres, Garibai, Portaloia eta Herriko Plaza.
- 19:30 Herriko Plazan, Olentzeroren Agurra. Mutil dantza eta Herri dantza.

Abenduak 31, domeka

- 11:30 Arrasate Musikaleko musika bandaren kalejira.
- 13:00 Amaia antzokian Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua.

Santamas komisiñuek jaia zuzenian bizitziaz batera baserritar janztea eskatzen dotzue

A. IBARLUZEA, J. GURIDI ETA JB AGIRRE (SANTAMASETAKOAI)

«Herri sustraien eraketa»

Duela 25 urte Santamas eguna nola edo hala indartu egin behar zela pentsatu zuten sei mondragoetarrek. Bi bider pentsatu barik, ekin eta egin zuten, eta begira zer nolako jaia piztu zuten gaurdaino!

Sortzaile haietariko hiru harrapatu (Juan Bautista Agirre, Joxe Guridi eta Agustín Ibarluzea), geurera ekarri eta hortxe ibili gara antzinako kontuak gogora ekarriz, barre eginez eta gustura, berriekaldian. Hona hemen emaitza:

— Zelakoa izan zen hasiera?

— Udalak lehendik antolatzen zuen Santamas eguna, baina ez zen bestelakorik egoten, egia esan. Adibidez, orduan kooperatibetako jendeak ez zuen jairik izaten egun horretan, beraz, ez zen jende askorik irteten. Txikiteoa egitera akaso, bai, baina besterik ez. Beraz, sei lagun elkartu ginen. Danok elkartari laguntza eskatu eta jaia nolabait indartu behar zela erabaki genuen.

36.000 pezetarekin hiru erremintari (gurdigilea, pilotagilea eta zestogilea) ekarri genituen, erremintak saltzeko beste gune bat jarri eta baserritarrez jantzita kalera irten

ginen... (barreak). Ez zen gauza handirik izan, baina haste-ko, nahikoa. Hurrengo urtean, dagoeneko, jaiaren antolaketaz arduratuko zen talde bat sortu genuen: Sianoren semea, Jazintoren semea, Joxe Arrasateren semea, Andres Bidabururen semea eta Anastasioren semea.

— Baina, lan horretan laguntzarik izan duzue...

— Bai, bai, beti. Herriko elkarte ia guztiek parte hartu izan dute beti Santamas eguna antolatzen. 100 lagun baino gehiago ibili izan dira lanean behin baino gehiagotan, hori seguru. Esan beharra dago, bai, herrian baldin bada dago herriko jairen bat, horiek direla Santamasak!

— Eta udalarekin, zer moduz?

— Hasieran, sorreran, harreman ona izan genuen; laguntza ere eman zigun; ondoren, baina, Ardantza alkate zenean, sekulako tentsio unak izan genituen. Gero, Alvaro Arregi alkatearekin, antolatzeari utzi genion (1984tik 1986a arte). Hura joan zenean, berriro hasi ginen, Xabier Zubizarretarekin, beste 8-10 urtean, Loitiren hiru-

ko gobernua heldu arte. Bi urte horietan ere etenaldia izan zen. Eta gero, berriro hasi ginen, gaur arte. Gaur egun, udalarekin erdibana antolatzen dugu jaia.

— 25 urte hauetan egon diren aldaketen artean, zeintzuk nabarmenduko zenituzkete?

— Alde batetik, jaia guztiz finkatuta eta errotuta dagoela, eta bestetik, izan duen hobekuntza nabarmena. Horrez gain, baserritar zein artisauei saltzeko toki bat ematen zaiela ere aipatu beharko litzateke, autoestimua antzekoa eta herritarrei kalitatezko jakiak nondik datozen erakusteko aukera; gaur egun gauzak dauden moduan egonda, ez da gutxi...

Eta ez hori bakarrik, euskal kulturari ere babes ematen zaio Santamasetan: euskal giroa, liburuak, musika... Azken batean, Santamas

sak herri sustraien erakusketa direla esan genezake.

— Zein aurrekonturekin ibiltzen zarete?

— Jaia udalarekin erdibana antolatzen dugunez, aurrekontua ere borobildu egin da, biena batera kontatuz. Hasierako 36.000 pezetatik nahikotxo urrundu gara, eta gaur egun, zortzi bat milioi pezeta gastatzen ditugu.

— Zer da prestatzeko gaitzena?

— Jendea inplikatzeko. Hori lortuz gero, gainerakoa lortuta dago. Dena dela, aipatu behar da, adibidez, hasieran ez genuela orain dugun azpiegitura, eta hori ere igarri egiten da.

— Hainbeste urtean, izango duzue kontatzeko anekdotarik...

— 1982. urtean Ardantzak esan zigun bera ez zegoela dadas Santamas



«Orain arte ez dugu lortu jendea baserritarrez jantzita ateratzea»

KAI BATZORDEKO KIDEAK)

«sketa dira»

egitarauan presoai aipamena egitearekin. Baina, Jai Batzordeko kide bat preso zegoen, eta noski, guk ezin genuen Ardantzaren esana onartu. Beraz, haserretu egin zen eta ez zigula diru laguntzarik emango jakinarazi zigun. Guk ere ez genuen dirurik eta bankura joan behar izan ginen, mailegu eske (bi milioi pezeta). Eta diru harekin antolatu genituen 82. urteko Santamasak.

Azkenean, baina, elurra egin zuen eta etorri behar ziren asko ez ziren etorri. Beste batzuek, gure egoera jakinda, ez zuten kobratu eta txerri zozketarekin lortu genuena aurrez ikusitakoa baino hiru bider gehiago izan zen. Zorionez, zor barik bukatzea lortu genuen... (barreak).

— Zein da gogoan duzuen Santamas jairik politena?

— Behin, lehengo garaiak gogoratzeko, artzain bizkai-

tar batekin tratua egin eta artalde bat herritik barrena pasatzea lortu genuen. Oso polita izan zen...

— Urte hauetan geratu zaizue zerbait egin barik?

— Orain arte ez dugu lortu jendea baserritarrez jantzita ateratzea, ez behintzat guk nahi adina jende, eta horrek pena handia ematen digu. Guk nahi duguna da Marixutan jende guztia dotore jantzita ateratzea lortu dugun moduan, Santamasetan ere baserritarrez jantzita ateratzea. Beraz, animo guztie!!!

Horrez gain, Mondragoen badugu harri jasotzaileendako harri berezi bat, 215 kilokoa, plazako lehengo harrizko jarlekuekin egindakoa. Itxura denez, baina, harri jasotzaileei ez zaie askorik gustatzen harri hori altxatzea, eta ez dugu lortu nahi adina ospea ematea harri horri. ■



EMAKUMEON TXOKOA

Etxeko lanak eta ardurak gizezkoen eta emakumezkoen artean elkartrukatzeko tailerrak

Gizezkoen eta emakumezkoen artean etxeko lanak eta ardurak banatzea dute helburu taller hauek.

- Martitzen eta eguenetan, 18:00etatik 20:30era.
- Urtarrilean hasi eta apirila bitartean.
- Matrikula: 2.000 PTA

Emakumezkoen tallerretan

Elektrizitatea / Iturgintza / Brikolagea / Pintura / Automobilien mekanika

Gizezkoen tallerretan

Joskintza / Lisatzea / Sukaldaritza / Garbiketa

Izen ematea: Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 telefonoan. Urtarrilaren 15a, azkeneko eguna.

Arrasateko emakumeen kontseiluaren irudia aukeratzeko lehiaketa

Arrasateko Emakumeen Kontseiluko logotipo edo anagrama aukeratzeko lehiaketa.

- Sari nagusia: 100.000 PTA.
- Akzesita: 25.000 PTA. Arrasatear batek aurkeztutako lan onenarentzat.
- Epea: 2001eko urtarrilaren 31.

Literatura edo irakurketa tailerra Monterronen

- Irakurtzea gustuko duen taldea elkartzen da Monterronen.
- Hilero liburu baten kritika egingo da eta ondoren elkarrizketa, eztabaida eta galderak izango dira.
- Hurrengo saioa: abenduaren 18an, astelehena, 18:00etan, Monterronen.
- Proposatzen den liburua: 'Miren gizen', Guy de Maupassant
- Zuzendaria: Itziar Zubizarreta.

Informazio gehiago, Arrasateko Udaleko Emakume Sallean; deltu 943 79 09 00 edo eta 943 79 41 39 telefonoetara. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, Herriko Plazara. Helbide elektronikoa: emakume@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

Garai bateko Santamasak



Etzabetarrek gaztainak erretzen ere ba omen dakite. Ikusi, bestela, 1981eko Santamasetako irudi hau.




1980ko Santamasetako idi demen argazkia da hau. Zaldibarko frontoian horretarako propio zen zorua jarri zuten.



Iñaki Perurenak sasoia izan du betidanik. 1980ko irudi honetan lasai asko ageri da harria aldean duela, ura edaten.



Santamasetako azokak beti izan ditu jarraitzaile asko eta 1980an ere Seber Altube bete-beteta egon zen.



Ahari demak ere egin ziren garai bateko Santamasetan. Argazki hau 1980. urtekoa da, Herriko Plazan egindako borrokarena.



Harri jasotzaileek Arrasateko harria jasotzen dutela urte batzuk badira. Irudietan duzuenak 1980an jaso zuen Herriko Plazan. Aurten Zaldibarren egingu du hori Goenatxok.



1990eko argazki honetan Urrezko Aizkorako txapelketan egiten diren probak egiten aritu ziren aizkolariak. Herriko Plaza jendez beteta egon zen eta elizan oraindik zuen aterpean ere jende dezente elkartu zen.

Santamasetako XII. xake txapelketa


Abenduaren 23an jokatuko da Santamasetako xake txapelketa. San Andres xake taldeak antolatu du eta aurtengoa 12. aldia izango da. Beste urte batzuetan bezala, Euskal Herriko xake taldeez gain, beste hainbat talde ere gonbidatu dituzte eta Kantabriako laukote bat ere etorriko ei da Arrasatera.

Txapelketa Corazon de Encina elkartearen izango da. Laukoteko xakelari bakoitzak bost minutu izango ditu partida jokatzeko. Talde guztien artean ligaxka egingo da eta puntu gehien batzen dituztenak iritsiko dira finalera.


San Andres xake taldeko ordezkariak ere arituko dira, baina Mikel Hernandok adierazi digunez, «asko jota bi laukote jokatuko dute, bestela talde gehiegi izango ginatke eta herrikoak».

Iaz San Andres izan zen irabazlea, Laredori irabazi ondoren. Txapelketa, abenduaren 23an izango da, goizeko 10etatik aurrera.


Santamas bezperako pilota jaialdia



Joxe Mari Zezeaga



Mikel Goni



Aitor Elkoro

Iazko Santamas bezperan Uarkapeko pilotalekua jendez gainezka egon zen. Herriko pilotalekuaren inaugurazioa izan zen orduan, eta herriko pilotariei omenaldia egin zieten. Arrasateko pilota elkartekoen eskutik, oroigarri bana jaso zuten pilotarekin zerikusia izan duten mondragoetarrek. Horrela hasi zen Uarkaparen ibilbidea. Ondoren, pilota jaialdia jokatu zen, eta pilotalekua estreinatu zuten artean, hiruk errepikatu egingo dute aurten ere, Zezeagak, Goñi II.ak eta Elkorok, hain zuzen.

Aspe enpresak antolatu-



Patxi Eugi

tako pilota jaialdian honako pilotariek jokatuko dute, eskuz binaka: Eugi - Zezeaga, Goñi II.a - Elkoro.

Lau t'erdiko txapelketa-rako sailkatu den Eugi pilotari handia ikusteko aukera izango dugu berriz ere Uarkapen. Ez da lau t'erdiko txapelketako finala izango, hori, Iruñean jokatuko da eta. Baina, saiatu behintzat egin da Arrasateko Udala final hori herrira ekartzen. Azkenean, baina, astelehen gauean Labriten jokatuko zela erabaki zen. Abenduaren 21ean, baina, 22:30ean, Uarkapen ikusi ahal izango ditugu 1. mailako pilotariak.

Gabonak gozatu!

Umeen moda



Garibai, 6
ARRASATE
943 79 97 86

Ferrerias, 34
ARRASATE
943 79 86 50

Zubizaneta



GALERIA 44

Zorionak eta urte berri on!

Gabonetako oparirik onenak

Zerkaosteta, 8 • Tel.: 943 79 90 50 • ARRASATE




**ARRASATE
KIROLAK**



*Santamas eta
Gabon jai zoriontsuak!*

Kontzeziño, 8 • ARRASATE • Tel: 943 79 46 12



TERNUA 



Erdiko kale, 11 ARRASATE Tfnoa: 79 14 33

1946-2000

Gabon zoriontsuak!

- | | | |
|-------------|------------|-----------|
| Camper, Dr. | Hispanitas | Lottusse |
| Marten's | Ellos | Ferrerias |
| Panama Jack | Escaleno | Romika |
| Nature | Koll Flex | Montbui |



AG AMAGARA

Erdiko kale, 54-behea • Tel.: 943 79 09 09

*Criosistem by intégrée
metodo eksklusiboa*



Krioelketroforesia, ohiko edozein teknikak baino emaitza askoz hobek ematen dituen berrikuntza teknikoa duzu.

Zatoz eta konpromezurik gabe galdetu.

Opari ezazu edertasuna Gabonetan!!

CRIOSYSTEM

INTEGRÉE

Santamasetako herri krosa



Portaloitik aterako dira korrikalariak.

Hogeitabigarren aldiz abiatuko dira Arrasateko kaleetan barrena korrikalariak. Zazpi mailatan jokatu da herri krosa. Lehenengoa goizeko 11etan hasiko da, 13 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoekin, eta azkena, 12:30ean. Azken hau koadrillen arteko proba izango da. Arrasate Kirolak Atletiko Taldeak antolatu du aurten ere Santamasetako herri krosa eta aipatutako azken proba horretan bildotsa, untxiak eta oilaskoak banatuko dituzte helmugara iristen diren lehenengo hiru koadrillen artean.

Santamasetako herri kro-

sa mondragoetar askok jarritzen duten lasterketa da. Iaz eguraldiak ez zuen batere lagundu. Euria egin zuen, orain dela bi urte bezala. Aurten, ikusi egin behar zer giro dagoen. Hala ere, Behobia-Donostian ere eguraldi eskasa egin zuen eta gure korrikalariak emaitza onak lortu zituzten.

Iazko lasterketan, nagusien sailkapenean, Ramon Jausoro, Jabier Mentxaka eta Joseba Larrinaga izan ziren lasterrenak.

Apustuak egiteko aukera bikaina izan daiteke Santamasetako herri krosa.

Nafarrak eta gipuzkoarrak aurrez aurre Santamasetan

Aizkolariak arituko dira Santamas egunean Zaldibarren. Bikoteak, honakoak: Olasagasti eta Arrospide, batetik, eta Larretxea eta Mindegia, bestetik.

Aurkarien arteko desafioa zortzi enborren mozketak izango da.

Lau aizkolariak Binakako Urrezko Aizkora txapelketa jokatzeko dabilta. Txapelketa abenduaren 8an hasi zen eta jadanik bost herritan jokatu da. Asteburu honetan Urretxun jokatuko dute, Santa Luzia ferian, alegia. Hurrengo txanpa Santamasetan izango dute.

Eta moztu beharrekoa, hauxe: 54, 60 eta 72 ontzako enborrak. Eta laugarren bat, 54 ontzakoa, baina zutikakoa.

Aizkolari bakoitzeko bina enbor jarriko dituzte Zaldibarko pilotalekuan. Guztira, beraz, zortzi.

Ea, bada, nor den azkarrena eta nork irabazten duen Santamas Aizkolari txapelketa!

GOENATXO

Harri jasotzaileei Arrasateko harria jasotzea ere egokitzen zaie, eta Santamasetan egin ohi dute proba hori. Aurten, Goenatxok jasoko du garai batean Herriko Plazan zeuden harrien tankerako Arrasateko harria deritzana. Harriak 215 kilo pisatzen du.

Hitzordua Santamas egunean izango da, Zaldibarren, 12:30ean.



Mindegia 1988an.

J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

Olarte, 2

Tel.: 943 79 15 32

JAI ZORIONTSUAK



A R R A S A T E

VIII. Binakako Dantza Txapelketa



Herriko Plazan egingo dira Santamasetako dantza gehienak.

Zortzigarren aldiz jokatuko da Binakako Arin-Arin eta Fandango Txapelketa, 14 urtetik beherako dantzariendako. Orain dela lau urte, pare bat urteko etenaldia egon zen, baina berriro indarrez datozkigu lehiaketa hauek; izan ere, euskal giro peto-petoko jai

horrekin ezin hobeto datoz euskal dantzen erakuskizunak eta lehiaketak. Domekan izango da, hilak 17, Herriko Plazan, 18:00etatik aurrera.

Trikitixa lagun dutela, arin-arin eta fandangoa dantzatuko dute hainbat bikotek. Gehienak Gipuzkoako esko-

letatik etorriko dira. Euskal Herriko Dantzarien Biltzarrak egiten die gonbidapena dantza eskolei. Soinu jotzaileak, aldiz, arrasatearrak izango dira, eta baita epaimahaiko kideak ere. Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeetako bina ordezkari erabakiko dute

zein bikotek egin duen hobeto dantza.

Lau sari emango dira: lehenengo bikoteari bordatutako zapia, plaka eta txapela, eta diru sari bat emango zaio. Bigarren bikotea ere sarituko dute. Eta neska dantzari onena eta mutil dantzari onena ere ez dira esku hutsik geratuko.

DANTZA IKUSKIZUNAK

Baina, lehiaketak alde batera, izango da euskal dantze-kin gozatzeko aukera gehiago. Ezin ahaztu Santamasetako ohitura bihurtu diren Txerri eta Larrain dantzak. Horiek Santamas egunean eskainiko dira, lehenengo, 14:00etan, eta gero, 19:00etan, Herriko Plazan. Gainera, egunean bertan, 11:30ean, kalejira izango da, eta Arrostitz eta Lore Gazteak-ek parte hartuko dute txistulariek, dultzaineroek, ttunturreroek eta txarangak lagunduta.

Bi taldeok banakako ekitaldiak ere eskainiko dituzte plazan, Lore Gazteak-ek 12:30ean eta Txikitxu-Arrostitzek ordubete geroago.

**GABON
ZORIONTSUAK
IGARO!**



AREITIO
Zarugalde. 35 • ARRASATE
Tel.: 943 79 38 38

MENDIZABAL



okindegia

Seber Altube, 2 • Tel.: 943 79 89 60
ARRASATE



**LASTER
ZABALIK!**

IRUDI SPORT GIMNASIOA

FITNESS-EAN ETA TALDEKO ESKOLETAN JOERARIK BERRIENAK.
ZURE LEKUA GORDE (LEKU MUGATUAK).

UARKAPE, 2-BEHEA. ARRASATE. TEL.: 617 75 00 33

Jai zoriontsuak!



DATORREN MILURTERAKO ITXURA ALDATU EZAZU.
EGUERDIETAN ERE ZABALIK

GORBEA, 2-BEHEA. ARETXABAETA. TEL.: 943 77 09 44



ITURRIOTZ

A R R A S A T E

Etxebizitza-multzoa

*Azken
etxebizitzak eta
lokalak!!*



Eragilea:

**ZERRAJERA
ETXEBIZITZAK, S.L**

Informazioa eta salmenta:

Iturriotz kalea, 35
ARRASATE
Tel.: 943 77 19 67 • 943 77 19 68

Bertso jaialdi bikaina Amaia antzokian



Sebastian Lizaso



Xabier Silveira



Andoni Egaña



Igor Elortza



Estitxu Arozena

Argazkiak: Euskaldunon Egunkaria

Bertsozaleek ere izango dute tokia Santamas jaietan. Arrasate Euskaldun Dezagun elkar-atea arduratu da horretaz. Amaia antzokia agertoki hartuta, izen zerrenda paregabea osatu dute arrasatearrei eskaintzeko: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Igor Elortza, Estitxu Arozena eta Xabier Silveira. Horiek guztiak daude gonbidatuta Santamas egunerako, gaueko 8 eta-

tik aurrera.

Sarrerak Irati, Iturriotz eta Monte tabernetan eta Hire liburu dendan eskura daitezke.

BERTSO ESKOLA

Baina, etxean ere badihardute bertsolarien harrobia egiten. Bi hilabete daramatzate bertso eskolan jo eta su. Irakasle berria ere badute: Oihane Pereda bertsolari gasteiztarrak har-

tu dio txanda orain arte irakasle izan den Asier Iriondori. Eta txanda hartzeaz bat, bertso eskola indartu ere egin du. Izan ere, Aramaioko irakasle izan da orain arte eta Mondragoera etortzean berarekin ekarri ditu hango ikasleak. Beraz, orain, Mondragoe, Aramaio, Bergara eta Aretxabalako ikasleak batzen ditu hemengo bertso eskolak.

Santamasetan izango dugu, bada, bertso eskolan emandako aldaketak ikusteko aukera.



Oihane Pereda

Egin txotx Santamasen ohorez!

Santamas Komisiñuek bere 25. urteurrena betetzen du aurten, eta urtemuga ospatzeko modu hoberik ez dago Santamasak abestea baino. Bi berritasun sartu dituzte antolatzaileek aurtengo egitarauan, eta horietako bat txotx jaialdia izango da. Beraz, urtero-urtero taloek ehunka lagun erakartzen bazituzten, orain sagardo goxoa izango dute taloari lagun egiteko.

TXERRI EDALONTZIAK

10:00etatik 14:00etara egongo da sagardogunea Herriko Plazan. Usurbilgo Saizar



baserritik ekarritako bi kupel sagardo ipiniko dira, eta Santamasetako txerriaren aurpegiarekin apaindutako edalontziak ere salduko dira, 300 pezetan, nahi beste edateko.

Sagardoari lagun egiteko, talo bero-beroa bezalakorik ez dago, eta bi talo postu izango dira plazan, agertokiaren lekuan: Ekin Emakumeak elkartearena eta Gatzaga emakume taldearena. Orain arte, Ekinekoak Olarten aritzen ziren, eta Gagatzaga-koak, artisauek erakusleketan, baina indarrak batzeko elkartu dira aurten.



Baserriko Santamas nagusia

Santamas jaiak baserriko bizi-moduari omenaldia dira, bizi-modu hori kalera ekartzeko aitzakia. Jai horiek 25. urteurrena betetzen dute aurten. Eta bi ezaugarri horiek biribiltzeko, ekintza berri bat antolatu du Santamas Komisiñuek: baserriko erreminten erakusketa.

DESAGERTZEAR

Erakusketa horren bidez, orain gutxi arte eguneroko bizitzan garrantzi handia izan duten tresnak argitara ekarri nahi dute antolatzaileek; izan ere, gaur egun ia ezezagunak dira lanabes horiek herritarrondako, batez ere, gazteenendako, eta desagertzeaz daude. Beraz, nekazaritzan, abeltzaintzan eta eguneroko bizitzan erabiltzen zen tresneria erakus-



teaz gain, tresna bakoitzak zertarako balio zuen azalduko dute erakusketan egongo diren arduradunek.

LIBURUXKA

Ez hori bakarrik: aurtengoak behar bezalako emaitzak izanez gero, datorren urtean biga-

ren aldia egingo dute. Bi urteotan erakutsitako erreminten inguruan liburuxka bat prestatuko da, informazio eta irudi interesgarrienekin. Liburuxka hori 2002. urtean argitaratzeko asmoa dute.

BASERRIEI ESKER

Arrasateko baserrien parte hartzea ezinbestekoa izan da. Batzordeko lagunak Musakola, Bedoña, Udala, Zalduspe eta Meatzerrekako baserrietan ate joka ibili dira lanabes bila. Goldeak, laiak, garia jotzeko tresnak, uztaerriak eta beste hainbat erreminta biltzea lortu dute.

Horiek guztiak ikusteko ez zarete baserrira joan beharko: Garibai etorbidean barrena izango dira ikusgai, abenduaren 22an, 10:30etik aurrera.

Euskalteleko banatzaile ofiziala

discopolis

MUSIKARIK GUSTUKOENA GABON HAUETARAKO!

<p>Los Secretos A tu lado</p>	<p>U2 All that you can't leave behind</p>	<p>Mark Knopfler Sailing to philadelphia</p>	<p>Enya A day without rain</p>
<p>Ricky Martin Sound loaded</p>	<p>Boom 2000</p>	<p>Lenny Kravitz Greatest hits</p>	<p>Texas The greatest hits</p>

JUAN CARLOS GERRA 1, 20500 ARRASATE. TEL.: 943 77 02 13

Erakusleiho lehiaketarako, dendak dotore-dotore

Ia 100 denda ari dira egunotan erakusleihorik ederrenaren saria eskuratu nahian. Gabonetako ohitura bihurtu da herriko merkatarien artean euren dendetako erakusleihoak inoiz baino dotoreago janztea. Arrazoia, erakusleiho lehiaketa. Eta, bide batez, Gabonetako giroa herrian zabaltzeko modu ezin hobea da. Jakina, horrek dakarren guztiarekin: Gabonetako erosketak leku ederretan egitea, etab.

Arrasateko Udalak antolatzen du lehiaketa hori, baina merkatariek sortutako ohitura da. Garai batean, herriko denda guztiek hartzen zuten parte, eta gaur egun, horretarako aukera ere badago. Baina, ia gehienak Ibai Arte barruan dauden merkatu txikiak dira. «Hala ere, Ibai Arten



Irabazleak 30.000 pezetako dirusaria eskuratuko du.

ez dauden beste denda batzuek ere eman dute izena aurten», azaldu digute udaletik. «Hori xe da-eta kontua, Gabon giroa

herri guztian zabaltzea».

DIRU-SARIA

Hiru sari banatzen dira era-

kusleiho ederrenen artean. Irabazleak 30.000 pezetako diru-saria eta plaka oroigarria jasoko ditu. Bigarrenak, berriz, 25.000 pezetak. Hirugarren saria, Arrasateko Udalak beharrean, Ibai Artek ematen du, eta horrek ere diru-saria jasoko du: 20.000 pezetak.

Egubakoitzean, abenduak 15, amaitu zen izena emateko epea, eta hortik eta urtarriaren hasiera arte erakusgai egon beharko dira erakusleihoak, orduan emango dituzte udalak lehiaketaren irabazleen izenak.

Bitartean, herriko merkatariek duten gustuez eta graziaz gozatzeko aukera izango dugu arrasatearrok.

On egin, eta ideiak hartu, batzuek merezi dute eta!

TITARE

Lentzeria



Jai zorientsuak!

Olarte kalea, 6 • Tel.: 943 77 10 16 • ARRASATE

Gustu guztiendako musika kaleak girotzeko

Kalerik kale ibiltzeko egun aproposa izaten da duda barik Santamas eguna, horretarako baitaude saltokiak herrian banatuta. Eta kaleko giro hori berotzeko hainbat ekitaldi izango dira bai bezperan, bai egunean bertan ere.

Eguenean, esaterako, 19:00etan, herriko erraldoi eta kilikien konpartsa irtengo da, gaiteroek lagunduta. Gaueko 11etan, berriz, Akelarre taldearen dantzaldia izango da Herriko Plazan.

EGUNEAN

Bestalde, Santamas eguna txistulari eta gaiteroen diariarekin esnatuko zaigu, goizean goiz. Ondoren, zer dagoen ikusteko astia hartuta, herriko musika eta dantza taldeek ohiko kalejirak eta ikus-




Musika eta dantza nonahi Santamas egunean.

kizunak eskainiko dizkigute herriko hainbat gunetan. Arratsaldea, berriz, ez da hutsik geratuko. Goloka taldearen

Sorginak kale antzerkia ikusteko aukera izango da 17:30etik aurrera Herriko Plazan (eguraldi txarra eginez

gero, Gazteluondoko kiroldegian). Eta bukatzeko, Irailerako Sei taldeak dantzaldia eskainiko du gauean, plazan.

S. Carrascal S.L.



Hemen egindako

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Bestelako armairuak
- Etabar

Santamas jai zoriontuak opa dizkizuegu.

Fabrikan erakusketa: Gipuzkoa Etorbidea, 6-1 A. Tel./Faxa: 943 79 01 82



Miren Garai

Estetika Zentroa

- Zelulitisa eta liposukzioa
- Lipektomia
- Bularren txikitzea eta handitzea
- Ezpainen handitzea
- Sudurra-begiazala
- Ximurrak Botox-arekin
- Amelan-ekin mantxak
- Barizeak
- Dietak
- Gorputzerako LIPOFIT eta alkatxofa-estraktu tratamenduak
- Aurpegiaren garbiketa
- Makillajea
- Depilazioa argizari hotzaz eta beroaz
- Depilazio elektrikoa
- Masajeak
- Solariuma

Ramon Aginaga Doktoarearekin.

Zarugalde 23, 2. ezk. • ARRASATE • Tel.: 943 79 96 90.

Zeuk aukeratutako bidean dago.

Zorionak eta urte berri on.

Aldi bi

Grupa Nortekar



Uribarri zeramikak



Zure etxeko txokoak janzten

Uribarri etorbidea, 22 • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 63

Baserritik Mondragoera zuzenean

Santamas jaietako protagonistak baserritarrak izanda, eurena da azokako zatirik handiena. Fruituak, barazkiak, eskulanak eta noski, animaliak, ikusgai izango ditugu, baserritik zuzenean Mondragoera ekarritakoak. Betiko moduan, Biteri aparkalekua, Azoka plaza eta Laubide eta Jokin Zaitegi plazetan egongo dira postu horiek guztiak.

Biteri kalean, berriz, bestelako jakiak ere izango ditugu: ezitia, ogia, jaki gozoak... 60 bat saltoki, guztira.

LEHIAKETAK

Eta jakina, urtero moduan, lehiaketak ere jokatuko dira: fruitu, barazki, gazta edo ezti onenak sarituko dira. Horrez gain, baserrian eskuz egindako ogiari ere sari berezia eman gozaio. Gaztari dagokionez, norberaren artaldeko Latxa ardi esne gordinaz egindakoak izan beharko da, 800 gramotik gorakoa. 20 bat gaztagile izango dira, gutxi gorabehera. Fruitu eta barazkiak, berriz, 20 bat lekutatik ekarriko dituzte, hauek ere baserrian hazitakoak, jakina. 35.000 peze-



Jose Luis Madinak irabazi zuen joan zen urteko fruitu lehiaketa.

tatik 20.000 pezetarainoko sariak banatuko ditu udalak irabazleen artean; barazki ekologiko onenek ere saria irabaziko dute.

ARTISAUAK ETA LANGINTZAK

Bestalde, Jokin Zaitegi plazaren bueltan 36 artisau egongo dira, XXIII. aldiz, Jai Batzordeak eskulangintzen erakusketa antolatu du eta Santamas egunerako. Bizkaia,

Gipuzkoa, Araba eta Nafarroatik etorritako artisauek hainbat langintza zelan egiten diren erakutsiko dituzte: zeramika, tindu naturalez gain, iruleak egongo dira, besteak beste.

BAILARAKO ANIMALIAK

Eta Santamas azokan ezin falta, jakina, abereak. Jai Batzordea arduratu da Mondragoera ekarriko duten ganaduaz. Bailarako baserritarren

parte hartzea bultzatzea helburu hartuta, Arrasate, Bergara eta Aretxabaletako abereak ekarriko dituzte. Ganaduari dagokionez, lau arraza ikusi ahal izango ditugu: Blondak, Pirenaikak, Asturiarrak eta Suizak. Horrez gain, hiru ardi sorta, adariak, moxalak, astoak eta poniak ere izango dira; baita urteko lehen bildotsak ere.

Jai Batzordearen esanetan, «azoka baserritarrak gustura dauden tokia izan behar da eta, bide batez, bailaran zer dagoen erakusteko bidea, hala ere, kostatzen da baserritarrak etortzeko konbentzitzea, askotan pertsona nagusiak direlako eta euren ere kostatzen zaielako etortzea». Hau jakinda, beraz, estimazio handiagoarekin gozatu beharko dugu baserritarren produktuez.

Aurreko guztiaz gain, Azoka plazan urteroko hegazti erakusketa ere egingo da. Aurten, gainera, partaide berezi bat izango dugu: Garagartzako Murrizena baserriko Tomas Errarte, oilo bereziki.

943 344 494

www.deika.com

- TELEF. FINKOA
- TELEF. MUGIKORRA
- AHOLKULARITZA INFORMATIKOA
- INTERNET
- TELEFONOGUNEAK

DEIKA
telekom

ENPRESA ETA PARTIKULARREI ZUZENDUTAKO ZERBITZUA

Eta orain Arrasaten ere bai:

ARRASATE
Kontzeziño, 12

ERRENTERIA
Morrongilleta, 1
M. Etxeberria, 1

BEASAIN
Nafarroa Hirib., 25

URRETXU
Areizaga, 1

BANATZAILE OFIZIALA: **Euskaltel**

Gizonak Emakumeak

Jantziak

Zorionak eta urte berri on!

Erdiko kale, 32 • ARRASATE • Tel.: 943 79 16 12

Olentzerori gutuna bidaltzeko eguna

Urtebeteko atsedendiaaren ondoren, abenduaren 24an itzuliko dira Arrasatera umeek gogo biziz espero dituzten hiru lagun: Txoronpio eta Txoronpia, Olentzeroren bi lagunak etorriko dira lehenengo, eta Olentzero, geroago. Txoronpio eta Txoronpiak herriko umei bisita egin, gozokiak banatu eta euren eskutitzak jasoko dituzte Olentzerori eramateko.

Hori eguerdi partean izango da; arratsaldean, berriz, Olentzero bera jaitsiko da menditik kalera, eta berak ere gozoki mordoa ekarriko ditu banatzeko. Kalerik kale ibili ondoren, agur esango die ume guztiei, lan handia izango du eta gau horretan.

HELDUEK ERE BAI

Txoronpiok eta Txoronpiak 1.000 bat gutun jasotzen dituzte urtero-urtero Arrasaten. Gehienbat umeenak dira, baina helduren batek edo bestek ere botatzen du zakura bere eskakizuna. Lagun horiei guztiei erantzuteko, Txoronpiok eta Txoronpiak Arrasateko hainbat talde eta elkarteren



laguntza jasotzen dute. Txistulariek, dantzariak eta gaiteroak alaituko dute Arrasate-

ko ibilbidea, eta Txatxilipurdi eta Orkatz Eskaut Taldea ere kalean ibiliko dira.

Ibilbidea

12:00	Munar
12:15	Uribe
12:30	San Andres
12:45	Musakola
13:00	Santa Teresa
13:15	Altamira



Year
oinetakoak

Jai zoriontsuak izan!

Biteri, 13
Tel.: 943 79 21 71
ARRASATE

Barrenkale, 9
Tel.: 943 76 22 86
BERGARA



ROMANELLI

Zorionak eta urte berri on!



**LIBURU ETA PAPER DENDA.
BIDAIARAKO
LARRUZKO ARTIKULUAK.**

Iturriotz, 4 • ARRASATE
Tel.: 943 79 14 84

Santamasak 2000, Arrasate Irratian

Datorren astean jaia izango da gure herrian, eta Arrasate Irratiak ere badu Santamasak ospatzeko asmoa. Abenduaren 22an herriko giroa zuzenean bizitzeko aukera eman go dizuegu. Betiko estudioetatik irten eta kalean izango da egun berezi horretan FM-ko 107.7a.

Sakelako telefonoak lagun ditugula, jai giroa helaraziko dizuegu irratia bitartez, zauden lekuraino heltzeko nahia dugu eta! Goizeko 10etan abiatuko gara kalea, eguerdiko ordu bata bitartean, zuzenean, Santamasak 2000z gozatzeko. Baina, goizean gurekin egoterik ez baduzue, bazkalostean, arratsaldeko 3retatik 6etara, errepikapena izango da.

Gabonak gerturatzten zaizkigula eta, gure irratiko programazioak aldaketatxo batzuk izango ditu. Iluntzeko irratsaioko lagunek oporrak hartuko dituzte, urtarrilaren 8a arte. Beraz, gaueko saioak entzuteko aste honetan aprobetxatu beharko duzue. Eguenean agur esango digute, datorren urtea arte. Horra hor, bada, adi-adi egoteko gonbidapena. Sorpresa ugari aurkituko dituzue.

Baina, amaitu aurretik, gogora ezazue abian dugula dagoeneko Argiako lehia-keta. Datorren eguna, hilak 21, baino lehenago deitu beharko duzue, 943-711731 telefonora. Eskuragai dituzue Argiaren 4 harpidetza sei hilabeterako, 10 egutegi eta *Gure Mendea* izeneko sei liburu, CD-ROM eta guzti. Tira, hartu telefonoa!



kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Abenduak 22: **Minimal Party** (23:00)

Abenduak 23: **Loquillo y los trogloditas + Arde Asia** (23:00)

Egun bakoitzerako **2** sarrera zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidalai gurera: Arrasate Press, Otalora 31.
Tel.: **943 71 17 31.**

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errebasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakatzen.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro eta zu.

Arrasateko Alde Zaharrea bi harategi daukazu kalitate zigoridun Euskal Okela erosteko, Euskal Herriko Okela, osasuntsu, zapoetsu eta naturala:

Landaluze Harategia (Iturriotz 7)
Jose Mari Salegi Harategia (Olarte 20)

EUSKO LABEL



KALITATEA



Jatorri bermea: Euskadi

Nongoa da okela? Euskal Okela guztia Euskal Herrikoa da eta gure baserrietan era tradizionalen hazitakoa.

1.000 pezeta euskal okelako, 29"ko 3 telebista Sony, 6 Thompson DVD eta 20 Philips Conbiren (telebista eta bideoa) zozketan parte hartuko duzu.



Francisco Escudero musikariak *Zigor* izeneko euskal opera egin zuen, enkar-guz, 1963. urtean. 1967. urteko ekainaren 27an estreinatu zen Madrilgo Zarzuela antzokian; lehen eta azkenengo aldiz eskaini zen, gainera. Informazio horrek ez luke izango bestelako zeresanik, ez balitz Mondragoeko jendea han egon zelako, antzezlanean parte har-

tzen, hain zuzen.

Talde berezi bat sortu zen *Zigor* taularatzeko, 114 abeslarik osatutakoa: Bilbo, Ondarroatza, Audio, Bergara eta Arrasateko jendeak parte hartu zuen.

Madrilgo Orkestra Sinfonikoak ipini zion musika operari, Enrique Garcia Asensioen zuzendaritzapean. Ager-tokian, berriz, Roberto Carpio izan zen gidaria.

Bikingoen eta euskaldunen

arteko borroka bat irudikatzen du opera horrek. Adibide ezin hobea dugu argazki hau: Madrilén izan ziren mondragoetar batzuk bikingoz jantzita, Zarzuela antzokiaren eskaileratan. Goitik behera begiratu, Iñaki Larrañaga 'Sanpru' da aurrenekoa, Jose Mari Mendizabal, Julito Iriondo eta Juan Arzamendi hurrengoak eta Patxi Nafarrete, Carmelo Heriz eta Pedro Zumelaga azkenen-

go hirurak. Hauekin batera, baina, beste mondragoetar batzuk ere izan ziren Madrilén: Fernando Aranburu, Jose Luis Lloiti, David Arzamendi eta Oscar Azkonaga. Sortutako talde bereziaren ordezkari-ta lanak, berriz, Consuelo Azkoagaren esku egon ziren.

Argazkia eta berriemailea:
Juan Arzamendi.

GANBARA

Erguin, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)
- Altzari zaharrak

Gabonak gainean dira. Hasi artea oparitzen!

Arte ederretako materialean
%25-30eko deskontua





INSTITUTO
OPTICO



Zuri-beltzez
edo koloretan...



...aukera ezazu zure estiloa.
Kalitatea aukeratu.

Erdiko Kale, 22 • Tel.: 943 79 71 68
Hiper Eroski • Tel.: 943 79 78 26 • **ARRASATE**

Andra Mari, 8 • Tel.: 94 620 29 86
Grupo San Ignacio • Tel.: 94 681 84 92 • **DURANGO**



lider **naturala**

Hona hemen Ford Mondeo Berria. Harrituko zaituen autoa. **Babeserako Sistema Adimentsu Esklusiboarekin.** Abian noiz jarri badakiten belaunaldi berriko 6 aire poltsarekin. ABSrekin. EBArekin. Egonkortasun Kontrol Sistemarekin. Eta askoz gehiago. Kanpo diseinu ausarta eta dotorea. Aluminioko 16 vko motoreen belaunaldi berria, potentzia handiagokoak eta eraginkorragoak. Gasolinan 170 cv ra artekoa eta 115 TDcin. Argibide gehiago eta froga www.ford.es edo 902 442 442.

MUGARRI

ford**mondeo** berria

